Getxo
UDALA • AYUNTAMIENTO

| 2010EKO OTSAILAREN 26AN, LEHENENGO DEIALDIAN GETXOKO UDALBATZAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA | ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR EL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO, EL DÍA 26 DE FEBRERO DE 2010. |
|---|---|
| ============================ | ============================ |
| B I L D U T A K O A K | ASISTENTES |
| LEHENDAKARIA | PRESIDENTE |

Imanol Landa Jauregi Jn.

| ALKATEORDEAK | TENIENTES DE ALCALDE |
|---|---|

Keltse Eiguren Alberdi (EAJ-PNV)
Joseba Arregui Martínez (EAJ-PNV)
Elena Coria Yanguas (EAJ/PNV)
Koldo Iturbe Mendilibar (EAJ-PNV)

| ZINEGOTZIAK | C O N C E J A L E S |
|---|---|

Begoña Ezkurra Ciruelos (EAJ-PNV)
Aitor Soloeta Eraso (EAJ-PNV)
Kepa Miñambres Llona (EAJ-PNV)
Josu Loroño Goienetxe (EAJ/PNV)
Álvaro González Pérez (EAJ/PNV)
María Luisa Arrue Bergareche (P.P.)
Eduardo Andrade Aurrecoechea (P.P.)
Jesús Toca Toña (P.P.)
Iñaki Gamero Delgado (P.P.)
Raquel González Díez-Andino (P.P.)
Josu Ahedo Ruiz (P.P.)
Juan Luis Eguiluz Borde (P.P.)
Jorge Grases García (P.P.)
Jone Ruiz de Eguilaz Salazar (P.P.)

Getxo UDALA • AYUNTAMIENTO

Álvaro Rodríguez Ratón (P.P.)
Luis Almansa Rubio (P.S.E.-E.E.)
Ricardo Villanueva Marcos (P.S.E.-E.E.)
Mercedes Angulo Ordozgoiti (P.S.E.-E.E.)
José Luis Cámara Ricondo (P.S.E.-E.E.)
Manuel Basanta Santiago (A.)

| IDAZKARI NAGUSIA | SECRETARIO GENERAL |
|---|---|

Ignacio Javier Etxebarria Etxeita Jn.

Getxoko Udalaren Udaletxeko Bilkura Aretoan eta Alkate-Lehendakaria Imanol Landa Jauregi jauna dela, egun horretako goizeko hamarretan, Udalaren Osoko Bilkura bildu da, lehen deialdian, ohiko bilkura egiteko. Bilkura horretara lehen adierazitako kideak joan dira eta baita Kontu-hartzailea, Luis Angel Corcuera Ruiz jauna, ere.

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial de Getxo y bajo la presidencia del Sr. Alcalde-Presidente, don Imanol Landa Jauregi, se reunió a las nueve horas y treinta minutos de este día el Pleno del Ayuntamiento, para celebrar sesión ordinaria, en primera convocatoria, con asistencia de los corporativos expresados al margen, más el Sr. Interventor municipal don Luis Ángel Corcuera Ruiz.

Alkate jaunak, legezko kopurua badagoela ikusita, bilkurari hasiera eman dio.

El Sr. Alcalde, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión.

Deialdian jasotako gaiak jorratzen hasi baino lehen, Alkateak esan du 21. puntua gai-zerrendatik kendu egin dutela.

Antes de iniciar el tratamiento de los asuntos incluidos en la convocatoria, el Alcalde indica que el punto nº 21 se retira del orden del día.

Ondoren, Deialdiko Aztergaien Zerrenda barruan jasota dauden gaiei heldu diete, eta emaitza honako hau izan da:

Seguidamente se pasó a despachar los asuntos incluidos en el Orden del Día de la Convocatoria, con el resultado siguiente:

**15.- <u>2010EKO URTARRILAREN 29AN</u>**

**15º.- <u>APROBACIÓN DEL ACTA DE</u>**

**EGINDAKO AURREKO OSOKO BILKURAREN AKTA ONARTZEA.**

Getxoko Udalbatzarrak urtarrilaren 29an egindako aurreko osoko bilkurako Akta onartu zen .

**LA ANTERIOR SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 29 DE ENERO DE 2010.**

Se aprobó el Acta de la anterior sesión ordinaria celebrada por el Pleno del Ayuntamiento de Getxo el día 29 de enero de 2010.

**A L KATETZA**

**A L C A L D Í A**

**16.- ADIERAZPEN INSTITUZIONALA ONARTZEA 2010EKO MARTXOAREN 8AN EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNAREN OSPAKIZUNA DELA ETA .**

Alkatetza Udalburutzaren proposamenez erabaki zen aho batez:

Gaur egungo testuinguru sozial eta politikoan, gero eta ahots gehiagok aldarrikatzen dute gazteei protagonismo handiagoa eman behar zaiela politika publikoen eraikuntzan, agente aktibo eta onuradun gisa. Etorkizunerantz aurrera egitea, etorkizuneko giltzarri direnen eskutik. Etorkizun horretan emakumeen protagonismoa ere bultzatu nahi da herritartasunaren gauzapenean; horren haritik, Instituzioak, eta horien artean Udalak, dagoeneko zenbait urte daramatzagu lanean herritarren, batez ere emakumeen, berdintasun eskariei erantzun nahian, eta, ahalegin ez gutxirekin, emaitza nabarmenak lortu ditugu zentzu horretan.

**16º.- APROBACIÓN DE UNA DECLARACIÓN INSTITUCIONAL CON MOTIVO DE LA CELEBRACIÓN EL DÍA 8 DE MARZO DE 2010 DEL DIA INTERNACIONAL DE LAS MUJERES.**

A propuesta de la Alcaldía-Presidencia, se acordó por unanimidad:

En el actual contexto social y político aumentan las voces que claman por dar a la juventud un protagonismo mayor en la construcción de las políticas públicas, tanto en su papel de agente activo, como de receptora de dichas políticas. Se trata de avanzar hacia el futuro de la mano de quienes constituyen la pieza clave del mismo. Un futuro en el que también se pretende impulsar el protagonismo de las mujeres en el ejercicio de sus derechos, para lo que las Instituciones, y entre ellas, los Ayuntamientos, llevamos ya algunos años tratando de dar respuesta a las demandas de igualdad de la ciudadanía, sobre todo de las mujeres, y, con no poco esfuerzo, obteniendo logros destacables en este

sentido.

Emakume gazteen kasuan, zeintzuek etorkizun hurbilean oinarrizko protagonista izateko erronka bikoitza baitute, beraien aurrendariek egindako lana aurrerapen eta bultzada handia da egiteko horretan. Dena dela, errealitate berri bati egin behar diote aurre; izan ere, desberdintasunaren adierazpenak, sarritan, zorrotzagoak dira, eta itxuraz berdintasunean oinarritutako errealitatea bizi dute.

En el caso de las mujeres jóvenes, que asumen ese doble reto de constituirse en protagonistas en un próximo futuro, el trabajo hecho por sus antecesoras ofrece un gran avance e impulso para ello. Sin embargo, afrontan una nueva realidad donde las manifestaciones de la desigualdad a menudo se muestran más sutiles, viviendo una realidad de aparente igualdad.

Nerabezaroan egindako ikerketek (EMAKUNDE, Emakumearen Euskal Erakundea. EAEko nerabeak. Hurbilketa ahalduntzetik abiatuta. Vitoria-Gasteiz. 2009 ) jokabide sexistak erakusten dituzte, bai eta nerabeen artean berdintasun urriko ohiko rolak daudela ere; era berean, eraso matxistek gora egin dutela edo horiek horrela identifikatzeko zailtasunak daudela ere erakusten dute. Hain zuzen ere, hori egiaztatu da azaroaren 25a Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna dela-eta Euskadiko zenbait herritan egindako ikerketan. Ikerketan, gazteen partaidetza eta protagonismoa izan da ardatz nagusia.

Los estudios llevados a cabo en la adolescencia (EMAKUNDE, Instituto Vasco de la Mujer. Los y las adolescentes vascos. Una aproximación desde el Empoderamiento. Vitoria-Gasteiz. 2009) revelan comportamientos sexistas y la reproducción de roles tradicionales poco igualitarios entre adolescentes, además de un aumento en las agresiones machistas o dificultades para identificarlas como tales. Así se ha constatado también en el seno de la investigación llevada a cabo en distintos municipios vascos con motivo del 25 de noviembre, Día Internacional contra la Violencia hacia las Mujeres, donde la participación y el protagonismo de las jóvenes ha sido el eje central de la misma.

Hori guztia dela eta, 2010eko martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Egunean,

Por todo ello, en este 8 de marzo de 2010, Día Internacional de las Mujeres,

JAKINIK Udalek daukagun erronka gazteen artean desberdintasuna eragiten duten erak identifikatu eta horien aurka egitea ahalbidetuko duten komunikazio-bideak ezartzea dela, bai eta euren esku baliabideak uztea eta jabekuntza ahalbidetzea ere,

CONSCIENTES, de que el reto al que nos enfrentamos los Ayuntamientos es establecer canales de comunicación que permitan identificar y actuar contra las formas en que se materializa la desigualdad en las jóvenes, dotarlas de recursos y favorecer su empoderamiento,

ADIERAZTEN DUGU emakume eta gizonen eskubideak oso-osorik eta berdin-berdin bermatu behar direla, eta bizitzan hain garrantzitsua den garai hori landu behar dela, gizon eta emakumeen arteko jarrera positibo eta berdintasunezkoak finkatzeko, betiere, emakumeek berdintasunean oinarrituta gauza dezaten beraien herritartasuna.

DECLARAMOS que es necesario garantizar el pleno ejercicio de los derechos de las mujeres y de los hombres de forma igualitaria y trabajar en esa etapa de juventud, tan crucial en la vida, para asentar conductas positivas e igualitarias entre hombres y mujeres, que permitan a éstas ejercer su ciudadanía en pie de equidad.

Eta, horretarako, orain inoiz baino gehiago, KONPROMISOA HARTZEN DUGU berdintasunaren aldeko eta indarkeriaren aurkako tokiko politikak sendotzeko, bereziki neska gazte eta nerabeei begira, euren partaidetza aktiboa sustatuz helburu hauen lorpenerako.

Y para ello, NOS COMPROMETEMOS, ahora más que nunca, a fortalecer las políticas locales a favor de la igualdad y contra la violencia, en especial hacia las jóvenes y adolescentes, impulsando la participación activa de éstas en el logro de dichos objetivos.

**OGASUN, EKONOMIA, GIZA BALIABIDE ETA KONTUAK**

**HACIENDA, ECONOMÍA, RECURSOS HUMANOS Y CUENTAS**

**17.- ALKATETZA-UDALBURUTZAREN 322, 548 ETA 551/2010 DEKRETUEN BERRI EMATEA. TRANSFERENTZIAK ERABILIZ AURREKONTUAK ALDATZEARI BURUZKOAK DIRA.**

**17º.- DACIÓN DE CUENTA DE LOS DECRETOS DE LA ALCALDÍA-PRESIDENCIA NÚMS. 322, 548 Y 551/2010, DE MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA MEDIANTE EL USO DE TRANSFERENCIAS.**

Ogasun, Ekonomia, Giza Baliabide eta Kontuen Batzorde Informatzailearen proposamenez, erabaki zen:

A propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Economía, Recursos Humanos y Cuentas, se acordó:

Transferentziak erabiliz aurrekontuak aldatzeari buruzko Alkatetza-Udalburutzaren ondoko Dekretuen jakitun geratzea :

Quedar enterados de los siguientes Decretos de la Alcaldía-Presidencia, de modificación presupuestaria mediante el uso de Transferencias:

2010eko urtarrilaren 21eko 322. Dekretua, 60.000,00 eurokoa.

Decreto nº 322 de 21 de enero de 2010, por un importe de 60.000,00 €.

2010eko urtarrilaren 29ko 548. Dekretua, 250.000,00 eurokoa.
2010eko urtarrilaren 29ko 551. Dekretua, 12.600,00 eurokoa.

Decreto nº 548 de 29 de enero de 2010, por un importe de 250.000,00 €.
Decreto nº 551 de 29 de enero de 2010, por un importe de 12.600,00 €.

**18.- ALKATETZA-UDALBURUTZAREN 7721/2009 DEKRETUAREN BERRI EMATEA . DEKRETU HORI KREDITUA HANDITUZ AURREKONTUA ALDATZEARI BURUZKOA DA**

**18º.- DACIÓN DE CUENTA DEL DECRETO DE LA ALCALDÍA-PRESIDENCIA NÚM 7721/2009, DE MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA MEDIANTE AMPLIACIÓN DE CRÉDITO.**

Ogasun, Ekonomia, Giza Baliabide eta Kontuen Batzorde Informatzailearen proposamenez, erabaki zen:

A propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Economía, Recursos Humanos y Cuentas, se acordó:

Kreditua handituz aurrekontuak aldatzeari buruzko Alkatetza-Udalburutzaren ondoko 7721 Dekretuaren (2009ko abenduaren 30ekoa) jakitun geratzea:

Quedar enterados del Decreto de la Alcaldía-Presidencia núm. 7721, de 30 de diciembre de 2009, de modificación presupuestaria mediante el uso de Ampliación de Crédito:

*005/6112/2220201 partida: 4.300,00 €.*
*004/5110/2271300 partida: 62.035,80 €*

*Partida 005/6112/2220201: 4.300,00 €.*
*Partida 004/5110/2271300: 62.035,80 €.*

**HIRIGINTZA, OBRA ETA ZERBITZUAK**

**URBANISMO, OBRAS Y SERVICIOS**

**19.- 2007-04-24KO OSOKO BILKURAN BEHIN BETIKOZ HARTUTAKO ERABAKIAN ONARTU ZEN "PORTU ZAHARRA" 19.1 EU-N (1. ETA 2. ZENBAKIAK) DISEINATUTAKO ERAIKUNTZAK EGOKITZEKO ETA ERRIBERA KALEKO 9. ZENBAKIKO ERAIKINA ORDEZTEKO XEHETASUN-AZTERKETAREN AURREAN, ANA**

**19º.- DACIÓN DE CUENTA DE LA SENTENCIA DE LA SALA DE LO CONTENCIOSO ADMINISTRATIVO DEL TSJPV RECAÍDA EN RECURSO Nº 927/07 PROMOVIDO POR DOÑA ANA Mª MALAGÓN Y DON LUIS Mª LÓPEZ DE GUEREÑU URRESTI, FRENTE A ACUERDO PLENARIO DE 24.4.07 QUE APROBÓ DEFINITIVAMENTE**

**Mª MALAGÓN ANDREAK ETA LUIS Mª LÓPEZ DE GUEREÑU URRESTI JAUNAK SUSTATUTAKO 927/07 ERREKURTSOAN EMANDAKO EAEKO AUZITEGI NAGUSIKO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN SALAREN EPAIAREN BERRI EMATEA.**

Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak Informazio-Batzordeak hala eskatuta, ondokoa adostu zen:

Getxoko Udalaren 2007-04-24ko erabakiaren aurrean, ANA Mª MALAGON ANDREAK ETA LUIS Mª LOPEZ DE GUEREÑU URRESTI JAUNAK ezarritako 927 / 07 errekurtsoa ebatziz, EAEko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien Salak emandako 553. Epaiaren edukiaren jakitun geratzea. Horren arabera, "Portu Zaharra" 19.1 Exekuzio Unitatean (1. eta 2. zenbakiak) diseinatutako eraikuntzak eta Erribera kaleko 9. zenbakiko eraikina ordezteko Xehetasun Azterketa behin betikoz onartzen da.

EPAI horren arabera, errekurtsoa ezetsi egiten da, errekurritutako erabakia bat datorrela zuzenbidearekin adieraziz, sortutako kostuen berariazko inposiziorik gabe.

**EL ESTUDIO DE DETALLE PARA LA ADAPTACIÓN DE LAS EDIFICACIONES DISEÑADAS NÚMS. 1 Y 2 EN LA U.E. 19.1- "PUERTO VIEJO" Y SUSTITUCIÓN DEL EDIFICIO Nº 9 DE LA CALLE RIBERA.**

A propuesta de la Comisión Informativa de Urbanismo, Obras y Servicios, se acordó:

Quedar enterados del contenido de la Sentencia nº 553, dictada el 14.09.09 por la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en resolución del recurso nº 927/07, interpuesto por DÑA. ANA Mª MALAGÓN y D. LUIS Mª LÓPEZ DE GUEREÑU URRESTI, frente al acuerdo de 24.04.07 del Ayuntamiento de Getxo, por el que se aprueba definitivamente el Estudio de Detalle para la adaptación de las edificaciones diseñadas nº 1 y 2 en la Unidad de Ejecución 19.1-"Puerto Viejo" y sustitución del edificio nº 9 de la calle Ribera.

Conforme al FALLO de dicha Sentencia se desestima el recurso, declarándose la conformidad a derecho del acuerdo recurrido, sin expresa imposición de las costas causadas.

**20.- SALSIDU KALEKO ("SARRIKOBASO" 31. ZENBAKIKO BANAKETA-ALDEA) 15. ZENBAKIKO ERAIKINERAKO HAPN-REN ALDAKETA ZEHATZA BEHIN BEHINEKOZ ONARTZEA**

**20º.- APROBACIÓN PROVISIONAL DE LA MODIFICACIÓN PUNTUAL DEL PGOUG PARA EL INMUEBLE Nº 15 DE LA CALLE SALSIDU (ÁREA DE REPARTO Nº 31- "SARRIKOBASO").**

Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak Informazio-Batzordeak hala eskatuta, ondokoa adostu zen aho batez:

A propuesta de la Comisión Informativa de Urbanismo, Obras y Servicios, se acordó por unanimidad:

LEHENA.- Behin behinekoz onartzea Salsidu etorbidearen 15. zenbakiari eragiten dion "Sarrikobaso" 31. Alderako Getxoko udalerriaren Hiri Antolamendurako Plan Nagusiaren Aldaketa Zehatza. Aldaketaren ondorioz, eraikuntza berri bat diseinatu da, 6. zenbakiarena, B+3ko altuerarekin eta 377, 22 m2-ko azalera eraikigarriarekin, Udal Arkitektoek idatzitako dokumentazioaren arabera.

PRIMERO.- Aprobar provisionalmente la Modificación Puntual del Plan General de Ordenación Urbana del municipio de Getxo para el Área nº 31-“Sarrikobaso”, que afecta al nº 15 de la Avda. Salsidu, diseñándose, como resultado de la modificación una nueva edificación, la nº 6, con una altura de B+3 y una superficie edificable de 377,22 m², de conformidad con la documentación redactada por la Arquitectura Municipal.

BIGARRENA.- Erabaki hau, honen arrazoia den espedientearekin batera, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeari helaraztea, ekainaren 30eko 2/2006 Legearen, Lurzoruari eta Hirigintza buruzkoaren, 91. artikuluak aipatzen duen txostena egin dezan, behin betiko onarpenaren aurretik egin beharreko izapide gisa.

SEGUNDO.- Remitir este acuerdo, junto con el expediente del que trae causa, a la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, para la emisión del informe al que se refiere el Art. 91 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, como trámite previo a su aprobación definitiva.

HIRUGARRENA: Alkatetza-Udalburutzari ahalmena ematea erabaki horiek gauzatzeko beharrezkoak diren ebazpen guztiak eman ahal ditzan

TERCERO: Facultar a la Alcaldía-Presidencia para dictar cuantas resoluciones resulten precisas para la ejecución de estos acuerdos.

**21.- HAPN-REN ALDAKETA ZEHATZAREN HASIERAKO ONARPENA. ALDAKETA HORI BIZILEKU IZAERA DUTEN ERAIKUNTZETAN IGOGAILUAK INSTALATZEKO BALDINTZEI BURUZKOAK DIRA.**

**21º.- APROBACIÓN INICIAL DE LA MODIFICACIÓN PUNTUAL DEL PGOUG, RELATIVA A LAS CONDICIONES PARA LA INSTALACIÓN DE ASCENSORES EN EDIFICACIONES EXISTENTES DE CARÁCTER RESIDENCIAL.**

Aurkeztutako proposamena Alkate jaunak kendua du

Por la Alcaldía fue retirada la propuesta de referencia.

**22.- <u>HAPN-REN ALDAKETA ZEHATZAREN HASIERAKO ONARPENA. ALDAKETA HORI LOS CHOPOS EORBIDEKO 19. ZENBAKIAN DAGOEN FINKAKO ZUHAIZTIARI BURUZKOA DA</u>**

**22º.- <u>APROBACIÓN DEFINITIVA DE LA MODIFICACIÓN PUNTUAL DEL PGOUG RELATIVA AL ARBOLADO DE LA FINCA SITA EN AVDA. DE LOS CHOPOS Nº 19.</u>**

Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak Informazio-Batzordeak hala eskatuta, ondokoa adostu zen aho batez:

LEHENA.- Onartzea, behin betiko izaeraz, Hiri Antolamendurako Plan Nagusiaren Aldaketa Zehatza, "Hiri Lurzoruaren eta Urbanizagarriaren Antolamenduaren" 6.2 planoari dagokiona, bai eta "Babestutako Elementuen" 11. zenbakiari dagokiona ere. Hala, ez dira haietan babestutako zuhaizti gisa marraztuta azalduko, Los Chopos etorbideko 19. zenbakian dagoen eraikineko lau zuhaitzak.

BIGARRENA: Erabaki hau, aldaketaren ale batekin batera (dokumentazio administratiboa eta teknikoa), Bizkaiko Foru Aldundiari helaraztea, Hirigintza Plangintzaren Erregistro Administratiboan gordeta gera dadin.

HIRUGARRENA: Behin betiko onarpenaren erabakiaren eduki guztia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea, eragindako hirigintzako arauekin batera, aurreko paragrafoak aipatzen duenez, gorde ondoren. Halaber, behin betiko onarpenaren erabakia lurraldean hedapen handiena

A propuesta de la Comisión Informativa de Urbanismo, Obras y Servicios, se acordó por unanimidad:

PRIMERO.- Aprobar, con carácter definitivo, la Modificación Puntual del Plan General de Ordenación Urbana, en lo que se refiere al plano nº 6.2 de los de “Ordenación del Suelo Urbano y Urbanizable”, así como al nº 11- “Elementos Protegidos”, para que no aparezcan grafiados en los mismos, como arbolado protegido, los cuatro ejemplares en el inmueble nº 19 de la Avda. de Los Chopos.

SEGUNDO: Remitir este acuerdo, junto con un ejemplar de la modificación (documentación administrativa y técnica), a la Diputación Foral de Bizkaia, para su depósito en el Registro Administrativo del Planeamiento Urbanístico.

TERCERO: Publicar en el Boletín Oficial de Bizkaia el contenido íntegro del acuerdo de aprobación definitiva, junto con las normas urbanísticas afectadas, una vez producido el depósito al que se refiere el apartado precedente. Publicar, asimismo, el acuerdo de aprobación definitiva en los

duten egunkarietan argitaratzea.

diarios de mayor difusión en el territorio.

LAUGARRENA: Erabaki hau, bere espedientearekin batera (dokumentazio administratiboa eta teknikoa) Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari helaraztea hark artxiba dezan; hori guztia, behar bezala bideratuta paperean nahiz formatu informatikoan.

CUARTO: Remitir este acuerdo, junto con su expediente (documentación administrativa y técnica), a la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco para su archivo, todo ello debidamente diligenciado y tanto en formato papel como en formato informático.

BOSGARRENA Alkatetza-Udalburutzari ahalmena ematea erabaki horiek gauzatzeko beharrezkoak diren ebazpen guztiak eman ahal ditzan.

QUINTO: Facultar a la Alcaldía-Presidencia para dictar cuantas resoluciones resulten precisas para la ejecución de estos acuerdos.

**23.- AUZOLAN GESTION SL ENPRESAK LOS CHOPOS ETORBIDEKO 19. ZENBAKIAN DAGOEN ERAIKINA ORDEZTEKO SUSTATU DUEN XEHETASUN-AZTERKETA BEHIN BETIKOZ ONARTZEA.**

**23º.- APROBACIÓN DEFINITIVA DEL ESTUDIO DE DETALLE PROMOVIDO POR AUZOLAN GESTIÓN, S.L. PARA LA SUSTITUCIÓN DEL EDIFICIO SITO EN EL Nº 19 DE LA AVDA. DE LOS CHOPOS.**

Proposamena irakurri eta gero bozkatu egin dute, eta hau izan da emaitza: EAJ, PP eta Alternatibaren aldeko 21 boto eta PSE-EEren 4 abstentzio.

Tras darse lectura a la propuesta se somete a votación, con el siguiente resultado: 21 votos a favor del PNV, PP y Alternatiba, y 4 abstenciones del PSE-EE.

Ondorioz, Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak Informazio-Batzordeak hala eskatuta, ondokoa adostu dute gehiengoz:

En consecuencia, y a propuesta de la Comisión Informativa de Urbanismo, Obras y Servicios, se acordó por mayoría:

LEHENA.- I.- Onartzea, behin betiko izaeraz, AUZOLAN GESTION SL merkataritza-enpresak aurkeztutako Xehetasun Azterketa, Chopos etorbideko 19. zenbakian dagoen eraikina ordezteko. Azterketa hori

PRIMERO.- I.- Aprobar, con carácter definitivo, el Estudio de Detalle presentado por la mercantil AUZOLAN GESTIÓN, S.L., para la sustitución del edificio sito en el nº 19 de la Avda. de Los Chopos, redactado por los

GEMA HERNANDEZ URIBARRI ANDREAK ETA CARLOS ACHA PAJARES JAUNAK idatzi dute eta 2008-07-15ean Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak ikus-onetsita. Onarpen hori Hiri Antolamendurako Plan Nagusiaren Aldaketa Zehatzaren behin betikoaren menpe izango da, "Hiri Lurzoruaren eta Urbanizagarriaren Antolamenduaren" 6.2 planoari dagokiona, bai eta "Babestutako Elementuen" 11. zenbakiari dagokiona. Hala, ez dira haietan babestutako zuhaizti gisa marraztuta azalduko, Los Chopos etorbideko 19. zenbakian dagoen eraikineko lau zuhaitzak

II.- Erabaki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

III.- Interesdunei jakinaraztea, Bizkaiko Foru Aldundiaren Kultura Sailaren mende dagoen Udal Ingurumenaren Zerbitzuak eta Ondare Zerbitzuak egindako txostenak bidalita, dagoen zuhaiztiari buruzkoa; horrekin batera, baliabideen jatorria aipatzea.

BIGARRENA.- Alkatetza-Udalburutzari ahalmena ematea erabaki horiek gauzatzeko beharrezkoak diren ebazpen guztiak eman ahal ditzan.

Arquitectos DÑA. GEMA HERNÁNDEZ URIBARRI y D. CARLOS ACHA PAJARES y visado del Colegio Oficial de Arquitectos Vasco Navarro de fecha 15.07.08, supeditándose esta aprobación a la definitiva de la Modificación Puntual del Plan General de Ordenación Urbana, en lo que se refiere al plano nº 6.2 de los de "Ordenación del Suelo Urbano y Urbanizable", así como al nº 11-"Elementos Protegidos", para que no aparezcan grafiados en los mismos, como arbolado protegido, los cuatro ejemplares en el inmueble nº 19 de la Avda. de Los Chopos.

II.- Publicar este acuerdo, en el Boletín Oficial de Bizkaia.

III.- Notificarlo a los interesados con remisión de los informes emitidos desde el Servicio de Medio Ambiente Municipal y el Servicio de Patrimonio dependiente del Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Bizkaia, respecto al arbolado existente, e indicación de los recursos procedentes.

SEGUNDO.- Facultar a la Alcaldía Presidencia para la adopción de cuantas resoluciones sean necesarias para la ejecución de estos acuerdos.

## MOZIOAK, INTERPELAZIOAK ETA GALDE-ESKEAK

## MOCIONES, INTERPELACIONES Y RUEGOS Y PREGUNTAS

**24.- ALDERDI POPULARRAREN MOZIOA, PUNTA BEGOÑAKO PROIEKTUARI BURUZKO**

**24º.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL POPULAR S/NECESIDAD DE INFORMACIÓN**

**INFORMAZIOA EMATEAREN INGURUKOA**

Marisa Arruek aipatu mozioa irakurri du. Era berean, adierazi du alderdi Popularrari lotsagarria iruditzen zaiola Bizkaiko lekurik onenetarikoa eta turismoa erakartzen duena hondamendi egoeran egotea. Horixe da EAJk, hogeita hamar urteko agintean, Getxoko aktibo arkitektonikoak kontserbatzeko darabilen politikaren adibide argia. Duela urte batzuk, sustatzaile batek 50 milioiko gordailua utzi zuen harresiak konpontzeko, eta ez dakigu zer gertatu den diru horrekin. Punta Begoñako proiektua estrategikoa da Getxorako turismo eta ekonomiaren aldetik duen eragina dela-eta, eta, hala ere, informazioa gorde eginda, nahiz eta behin baino gehiagotan horri buruz galdetu. Haren ustez, ezin da gehiago itxaron, harresiak hondatzen ari direlako; beraz, ondare arkitektonikoa galtzen ari dira.

Manu Basantak esan du Mozioaren alde bozkatuko duela, positiboa baita Udaleko alderdie informazioa ematea. Begoña Puntan ondarea ez dira kontserbatzen ari, eta beldur da hondamendiarekin ez ote duten botatzea lortu nahi, horixe izanik Barcelóren interes pribatua.

Joseba Arregik Gobernu taldearen izenean alderdi Popularrari esan dio badakiela zer egiten ari diren Punta Begoñaren inguruan; izan ere, azken aldiz urtarrilaren 25eko Bozeramaileen Batzarrean eman zioten horri buruzko informazioa. Badaki Bizkaiko Foru Aldundiak fatxada kontserbatzeko

**SOBRE EL PROYECTO DE PUNTA BEGOÑA.**

Marisa Arrue da lectura a la Moción de referencia. Indica también que le parece al grupo Popular una vergüenza que un lugar de los mejores de Bizkaia y de gran afluencia de turismo, se encuentre en la situación de deterioro que está, lo que le parece un ejemplo claro de la política de conservación de los activos arquitectónicos de Getxo que practica el PNV en sus treinta años de mandato. Recuerda que hace años un promotor dejó un depósito de 50 millones para arreglar las murallas sin que se sepa nada de lo que ha sucedido con ese dinero. Estima que el proyecto de Punta Begoña es estratégico para Getxo por su incidencia turística y económica, y a pesar a ello se oculta información pese a que han preguntado en reiteradas ocasiones. Cree que no se puede esperar más ya que las murallas se están destruyendo, y por tanto se está perdiendo patrimonio arquitectónico.

Manu Basanta manifiesta que va a votar a favor de la Moción por entender que es positivo que se informe a los grupos municipales. Estima que el caso de Punta Begoña es un caso de abandono en la conservación del patrimonio, y teme que lo que se busque es un nivel de deterioro que justifique el derribo, lo que beneficiaría los intereses privados de Barceló.

Joseba Arregi en nombre del equipo de Gobierno manifiesta al grupo Popular que conoce todo lo que se está realizando acerca de Punta Begoña, ya que la última vez que se les trasladó información fue en la Junta de Portavoces del pasado 25 de enero. Recuerda que la Diputación Foral de

azterketa teknikoa egiteko agindua eman duela eta beste azterketa osagarri bat egitura aztertzeko. Azken hori 2009. urtearen hasieran esleitu zen, eta badirudi amaitzear dagoela eta azken ondorioak idazten ari direla. Beraz, hemendik gutxira, Aldundiak Udalari bidaliko dizkio azterketa horiek. Era berean, azaldu du udal talde guztiek nahi dutela inguru hori lehenbailehen zaharberritzea erabilera publikoaren eta jarduera ekonomikoaren zerbitzura jartzeko. Gainera, babestutako elementuetarako, erabakiak atzeratzen dituzten txosten asko behar izaten dira, eta Gobernu taldea Foru Aldundiarekin eta Barcelórekin kudeatzen ari da proiektua burutzeko saiatzearren. Azkenik, esan du Mozioaren aurka bozkatuko duela eman dituen azalpenetan oinarrituta eta bereiztu egin behar direlako Gobernu taldeari dagokion kudeaketa-eremua eta Osoko Bilkurari dagokion kontrola, eta gogoratu du balio arkitektonikoa duten Bake Eder bezalako beste eraikin batzuetan berreskuratzeko jarduerak egin dituztela.

Bizkaia ha encargado un estudio técnico de conservación de la fachada y uno complementario acerca de la estructura, habiendo sido este último adjudicado a primeros del 2009 y que al parecer está finalizándose y redactándose las conclusiones finales, lo que implica que en breve plazo se remitirá desde la Diputación al Ayuntamiento. Indica que es voluntad de todos los grupos municipales que se restaure cuanto antes este paraje para ponerlo al servicio del uso público y de la actividad económica. Recuerda también que la actuación en elementos protegidos requiere muchos informes que ralentizan las decisiones, y traslada que el equipo de Gobierno está gestionando con la Diputación Foral y con Barceló para intentar llevar a cabo el proyecto. Finaliza indicando que van a votar en contra de la Moción en base a las explicaciones dadas y porque es necesario distinguir entre el ámbito de la gestión que corresponde al equipo de Gobierno, y el control que corresponde al Pleno, recordando que en otros edificios de valor arquitectónico como Bake Eder se han realizado actuaciones que han posibilitado su recuperación.

Arrue andreak esan du alderdi Popularrak mozioa aurkeztu duela harresien egoerarekin kezkatuta izateagatik eta bi urte gehiegi iruditzen zaizkiola Bizkaiko Foru Aldundiak txostena egiteko. Bozeramaileen Batzarrean soilik esan zuten Aldundiaren txostenik ez zutela eta itxaroten zeudela. Gobernu taldearekiko sinesgarritasunik ez du, Getxo Antzokia eta Telefonicaren eraikina bezalako proiektuetan erakutsi dieten esperientzia dela-eta, eta arraroa iruditzen zaio alderdi Sozialistak ezer ez esatea ; hortaz, beldur da ez ote duten amarruren bat izango Gobernu

La Sra. Arrue manifiesta que el grupo Popular trae la Moción por su preocupación por el estado de las murallas, y que además le parece excesivo dos años para emitir el informe por parte de la Diputación Foral de Bizkaia. Manifiesta que en la Junta de Portavoces el equipo de Gobierno únicamente dijeron que no tenían el informe de la Diputación y que seguían esperando. Muestra su falta de credibilidad hacia el equipo de Gobierno por la experiencia que les han demostrado en proyectos como el Getxo Antzokia y el edificio de Telefónica, y manifiestan su extrañeza

taldearekin. Berriro esan du garrantzitsua dela Mozioaren edukia onartzea, proiektuaren izaera estrategikoarengatik, eta, Bake Ederreko jardueraren inguruan, uste du Gobernu taldeak esku hartu duela, baina denbora-lapsus luzea igarotzen utzi eta gero; ondorioz, eraikina eta barrualdea dezente hondatu dira.

de que el grupo Socialista no diga nada, por lo que teme que tendrán algún tipo de amaño con el equipo de Gobierno. Insiste en que es importante asumir el contenido de la Moción por el carácter estratégico del proyecto, y referente a la actuación en Bake Eder cree que el equipo de Gobierno ha actuado, pero después de haber dejado pasar un gran lapso de tiempo que ha supuesto un deterioro importante del edificio y de su interior.

Arregi jaunak esan du Gobernu taldearen izenean onartzen duela, horrelako jarduereetan berriak daudenean, informazioa emateko konpromisoa, eta adierazi du denekin batera lan egiteko borondatea duela, proiektua aurrera eramatearren.

El Sr. Arregi asume el compromiso en nombre del equipo de Gobierno de informar cuando se tengan novedades en estas actuaciones, y manifiesta la voluntad de trabajar conjuntamente con todos para llevar adelante el proyecto.

Marisa Arruek adierazi du Udalak aurre hartu behar diola Aldundiari eta presionatu izapideak azkartu ditzan. Mozioaren aurka bozkatzea Alkatea egiten ari den adierazpen ugariren aurka bozkatzea litzateke; baita ere, informazioaren konpromisoaren eta garrantziaren aurka eta udal alderdien parte-hartzearen aurka botoa ematea.

Marisa Arrue indica que el Ayuntamiento tiene que ir por delante y presionar a la Diputación para agilizar los trámites. Indica también que votar en contra de la Moción va en contra de las abundantes manifestaciones que viene realizando el Alcalde, del compromiso y la importancia de la información y la participación de los grupos municipales.

Aipatu Mozioa bozkatu dute, eta hau izan da emaitza: PP eta Alternatibaren aldeko 11 boto, EAJren aurkako 10 boto eta PSE-EEren 4 abstentzio.

Sometida la Moción de referencia a votación, obtiene el siguiente resultado: 11 votos a favor del PP y Alternatiba, 10 en contra del PNV y 4 abstenciones del PSE-EE.

Ondorioz, gehiengoarekin, ondorengoa adostu dute:

En consecuencia, por mayoría se acordó:

"PUNTA BEGOÑAKO PROIEKTUARI BURUZKO INFORMAZIOA EMAN BEHARRA"

"NECESIDAD DE INFORMACIÓN SOBRE EL PROYECTO DE PUNTA BEGOÑA

Punta Begoñako harresietan, gure

El proyecto de construir un hotel de

herriko leku enblematikoan, bost izarreko hotela eraikitzeko proiektua atzeratzen ari da, eta ez dakigu egun zer-nolako egoeran aurkitzen den.

cinco estrellas en las murallas de Punta Begoña, este lugar emblemático de nuestro pueblo, se esta retrasando en el tiempo y nada se sabe de como se encuentra en la actualidad.

Teorian, 2008. urtearen hasiera aldera, bost izarreko hotela eraikitzeko obrari hasiera eman behar zitzaion, eta gaur arte ez da inolako mugimendurik egin.

En teoría, a principios del 2008, se tenía que haber empezado con la obra de construcción del hotel de cinco estrellas, sin que hasta la fecha se haya iniciado ningún movimiento.

Halaber, jakin badakigu duela urte eta erdi Bizkaiko Foru Aldundiari txostena eskatu zitzaiola harresien egoera ez ezik, haiek berreraikitzeko modua ere definitzeko. Denbora gehiegi ez al da txosten bat egiteko?

También conocemos que hace año y medio se solicitó un informe a la Diputación Foral de Bizkaia para que definiese el estado de las murallas y la forma de reconstrucción de las mismas. Un poco demasiado tiempo para hacer un informe ¿o no?.

Denbora aurrera doa, eta harresietan ez da ezer egin. Gero eta gehiago hondatzen ari direnez, inguruan hesia jarri behar izan da lur-jauziak medio istripurik gerta ez dadin.

El tiempo pasa y en las murallas no pasa nada, salvo que su deterioro está aumentando y ha obligado a rodear todo el entorno con una valla para evitar posibles accidentes por desprendimientos.

Zalantza, okultismo eta sekretismoen aurrean, uste dugu bilkura-areto honetan ordezkaritza duten alderdi politiko guztiek eskubidea dutela egun zer-nolako egoeran dagoen zuzenean jakiteko.

Ante esta situación de incertidumbre, de ocultismos y secretismos consideramos que todos los partidos políticos con representación en este salón de plenos tienen derecho a conocer de primera mano la situación actual del mismo.

Hori guztia dela-eta, bidezkoa da gobernu taldeak bilerara deitzea, ahalik eta denbora laburrenean, Udal honetan dauden alderdi guztietako bozeramaileak eta Aldundian txostena egiten ari diren ordezkariak; beste bilera bat, berriz, Barcelóko ordezkariekin egin behar litzateke proiektuaren inguruan egun zer jarrera duten jakiteko.

Por todo ello, creemos procedente que, en el menor plazo posible, el equipo de gobierno convoque a una reunión de los portavoces de todos los grupos presentes en este ayuntamiento con los representantes de la Diputación que deben estar haciendo un informe, y otra reunión con los representantes de Barceló para conocer cual es su postura actual sobre este proyecto.

Ondorioz, Udal Alderdi Popularrak

Por todo ello el Grupo Municipal

Osoko Bilkurari ondorengo akordio-proposamena egiten dio, eztabaidatu eta onartua izan dadin:

LEHENA: ahalik eta azkarren, bilera bat egitea Udal honetan dauden alderdi politikoen bozeramaileekin eta Aldundian txostena egiten ari diren ordezkariekin, zein egoeratan dagoen zuzenean jakite aldera.

BIGARRENA: beste bilera bat egitea Barcelóko ordezkariekin, proiektuaren inguruan zer jarrera duten zuzenean jakitearren.

HIRUGARRENA: mozio honen berri ematea Udalaren komunikabideetan".

Popular presenta la siguiente propuesta de acuerdo al Pleno, para su debate y aprobación:

PRIMERO: Que a la mayor brevedad posible se convoque una reunión de los portavoces de los grupos políticos presentes en este ayuntamiento con los representantes de la Diputación, que deben estar redactando un informe, para conocer de primera mano la situación del mismo

SEGUNDO.- Se convoque otra reunión con los representantes de Barceló para conocer de primera mano su postura actual sobre este proyecto.

TERCERO: Que se informe de la presente moción en los medios de comunicación municipales".

**25.- <u>UDAL ALDERDI POPULARRAK FAROLA FOTOVOLTAIKOAK JARTZEAREN INGURUAN AURKEZTUTAKO MOZIOA</u>**

Jone Ruiz de Eguilazek aipatu mozioa irakurri du.

Joseba Arregik adierazi du Gobernu taldea abstenitu egingo dela, filosofiarekin ados egonda ere, gaia praktikan jartzeko zailtasun handiak ikusten dituztelako, besteak beste, baldintza klimatologikoak eta Getxoko udalerriaren hondamena dela-eta.

Mozioa bozkatu egin dute, eta honako hau izan da emaitza: PP, PSE-EE eta Alternatibaren aldeko 15 boto eta EAJren 10 abstentzio.

**25º.- <u>MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL POPULAR S/INSTALACIÓN DE FAROLAS FOTOVOLTAICAS.</u>**

Jone Ruiz de Eguilaz da lectura a la Moción de referencia.

Joseba Arregi manifiesta que el equipo de Gobierno se va a abstener porque aún estando de acuerdo con la filosofía, ven grandes dificultades de llevar el tema a la práctica, entre otras cuestiones, por las condiciones climatológicas y de asolamiento del municipio de Getxo.

Sometida la Moción de referencia a votación, obtiene el siguiente resultado: 15 votos a favor del PP, PSE-EE y Alternatiba, y 10 abstenciones del PNV.

Ondorioz, gehiengoarekin, ondorengoa adostu da:

"FAROLA FOTOVOLTAIKOAK INSTALATZEA

Farola Fotovoltaikoak argiztatze ekologikoaren kontzeptu berria dira, eta, farola tradizionalekin alderatuta, asko aurreztu daiteke alderdi guztietan: erosterakoan, jartzerakoan, funtzionamendu-kostu txikia dute eta kontsumo elektrikorik ez.

Eguzki-farolek ez dute inolako energia laguntzailerik behar ez eta mantenimendurako energiarik. Produzitzeko eta gordetzeko gaitasun gehiago dute, argitasun handiagoa. Material oso iraunkorrekin egiten dira, eta argi-kutsaduraren eta aurrezpen energetikoaren gaineko nazioarteko araudi zorrotzenak betetzen dituzte. Modu horretan, ekonomia nahiz ingurumen aldetik, onurak eskaintzen dituzte.

Farola horiek ohiko argiteria publikoaren alternatiba dira. Eguzki-modulo fotovoltaikoak erabiliaz, indar elektrikoa sortzen da behar den lekuan, hargune elektrikoa instalaziotik gertu izan beharrik gabe. Beraz, kostuak merkeagoak dira; izan ere, askotan linea elektrikoa urruneko puntuetara eramatea eguzki-argiak duen aurrekontu osoa baino gehiago kostatzen baita. Eguzki-farolak jartzea aukera onenetarikoa da kokapen batzuetan; hau da, aproposak dira plazetan, parkeetan eta lorategietan, landa-eremuetan, urruneko hiriguneetan eta natura-guneetan jartzeko.

En consecuencia, por mayoría se acordó:

"INSTALACIÓN DE FAROLAS FOTOVOLTAICAS

Las Farolas Fotovoltaicas son un nuevo concepto de iluminación ecológica, suponiendo un considerable ahorro respecto a las farolas tradicionales en todos los aspectos: su adquisición, instalación, mínimo costo de funcionamiento y consumo eléctrico cero.

Las farolas solares no necesitan ningún tipo de energía auxiliar ni de mantenimiento, tienen más capacidad de producción y de almacenamiento, más luminosidad, están fabricadas en materiales altamente resistentes, y se ajustan a las más estrictas normativas internacionales sobre contaminación lumínica y ahorro energético, reportando beneficios económicos y medioambientales.

Estas farolas representan una alternativa al alumbrado público convencional. Con la utilización de módulos solares fotovoltaicos se genera corriente eléctrica allí donde se necesite, sin importar si el lugar de instalación está cerca de una acometida eléctrica, con lo cual se abaratan costes, ya que a menudo desplazar una línea eléctrica a puntos alejados supone una inversión superior al presupuesto total del alumbrado solar. La instalación de farolas solares supone una de las mejores alternativas en ciertas localizaciones, siendo ideales en plazas, parques y jardines, zonas rurales, núcleos urbanos alejados y espacios naturales.

Argiztatze-sistema horren abantailen artean, ondorengoak aipa daitezke: eguzki-farolak ez direnez sare elektronikoarekin konektatzen, kontsumo energetikorik ez dute izaten; mantenimendu txikia dute; %100 autonomoak dira; eskaintzen duten teknologiari esker, udal-zerbitzuek farolaz farola lan egin dezakete, ordenagailu soil batekin, eta noiz piztu eta noiz itzali programa dezakete kokapenaren eta dataren arabera. Modu horretan, %80ra bitarteko aurrezpen energetikoak lor daitezke, eta Udalaren faktura elektrikoa murriztu egiten da. Eta horrekin guztiarekin berotegi-efektuko gas-igorpenak izugarri murrizteaz gain, argien bidez ez kutsatzea lortzen da.

Como ventajas de este sistema de iluminación podemos señalar que las farolas solares no están conectadas a la red eléctrica por lo que su consumo energético es nulo, tienen un mínimo mantenimiento, son autónomas al 100%, cuentan con una tecnología que permite a los servicios municipales gestionar farola a farola mediante un simple ordenador pudiendo programarse los encendidos y apagados en función de la localización y la fecha en que nos encontremos, obteniendo ahorros energéticos de hasta un 80%, reduciéndose así la factura eléctrica municipal. Todo ello sin olvidar la importante reducción en las emisiones de gases de efecto invernadero y que con su utilización contribuimos a la no contaminación lumínica.

Hori guztia dela-eta, Udal Alderdi Popularrak Osoko Bilkurari ondorengo akordio-proposamena egiten dio, eztabaidatu eta onartua izan dadin:

Por todo ello, el Grupo Municipal Popular eleva ante este Pleno, para su debate y aprobación, la siguiente Propuesta de Acuerdo:

Getxon, pixkanaka-pixkanaka farola fotovoltaikoak jartzen hastea, bereziki landa-eremuetan eta zentrotik urrunago daudenetan, plazetan, parkeetan eta lorategietan, argi-kutsadura murrizteko eta energia aurrezteko dagoeneko martxan dauden jardueren barruan, eta hori Kiotoko Protokoloan emandako gehiengoak beteaz. Modu horretan, Udalaren faktura elektrikoa izugarri gutxituko da. Gainera, farolen potentzia %40 murriztu daiteke ordu zehatz batetik aurrera edota gauean orduak aurrera doazen heinean beharrezkoak ez diren leku batzuetan itzali. Ekimen horien bidez, argiteria publikoan gure eraginkortasun energetikoa hobetu nahi da, energia berriztagarriekin eta

Proceder a la Implantación progresiva de Farolas Fotovoltaicas en Getxo, actuando especialmente en los núcleos rurales y aquellos urbanos más alejados del centro, plazas, parques y jardines, dentro de las actuaciones, algunas ya en funcionamiento, que nos permitirán reducir la contaminación lumínica y ahorrar energía cumpliendo las máximas del Protocolo de Kioto, sin olvidar la importante rebaja que suponen en la factura eléctrica del Ayuntamiento, como son rebajar la potencia de las farolas en un 40% a partir de determinada hora, e incluso apagar algunas innecesarias a altas horas de la noche. Con estas iniciativas se busca mejorar nuestra eficiencia energética en el alumbrado público

kontsumoa murrizteko eta kontrolatzeko sistema aurreratuekin".

mediante energías renovables y avanzados sistemas de reducción y control de consumo".

**26.- UDAL ALDERDI POPULARRAK GETXO ANTZOKIRAKO BIDEGARRITASUN-PLANAREN INGURUAN AURKEZTUTAKO MOZIOA**

**26º.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL POPULAR S/PLAN DE VIABILIDAD PARA EL GETXO ANTZOKIA.**

Eduardo Andradek ondorengo mozioa irakurri du:

"GETXO ANTZOKIRAKO BIDERAGARRITASUN-PLAN.

Edozein negozio edo enpresa-abenturarako, funtsezkoa da bideragarritasun-plana egitea proiektua abian jarri aurretik. Izan ere, era horretan, sustatzaileak aztertu eta zehaztu ahal izango ditu hasi beharreko negozioaren alderdi ezberdinak.

Harrigarria da EAJk Getxoko Antzoki berriaren inguruko bideragarritasun-planik oraindik ere ez aurkeztu izana, agiri horrekin edozein enpresarik edo ekintzailek ebalua baitezake proiektuaren errentagarritasun ekonomikoa. Bideragarritasun-planean negozioak eragindako inbertsioak eta gastuak ez ezik, lor daitezkeen sarrerak ere aztertzen dira.

Oinarrizko hiru datu kontuan hartuta, froga dezakegu makroproiektu horrek gure Udalak onartu ezin dituen gastuak izan ditzakeela urtean:

Lehenik eta behin, Alkateak berak

Eduardo Andrade da lectura a la siguiente Moción:

"PLAN DE VIABILIDAD PARA EL GETXO ANTZOKIA.

Para cualquier negocio o aventura empresarial es básico la elaboración de un plan de viabilidad con anterioridad a la puesta en marcha del proyecto de modo que el promotor, estudie y concrete los distintos aspectos del negocio a iniciar.

Es sorprendente que, al día de hoy, el PNV no haya presentado un plan de viabilidad del nuevo Antzokia de Algorta, cuando este es un documento que permite a cualquier empresario o emprendedor evaluar la rentabilidad económica de su proyecto. En un plan de Viabilidad se analizan tanto las inversiones y gastos que el negocio ocasionará como los ingresos que se prevén obtener.

Teniendo en cuenta tres datos básicos podemos comprobar que este macroproyecto puede alcanzar unos gastos anuales inasumibles para nuestro ayuntamiento:

En primer lugar, según se ha

publikoki adierazi duenez, Antzokia eraikitzea 30 milioi euro kostako da, eta diru-kutxatik gutxienez 2.892.183 € jarri beharko dira URTEAN banku-maileguetarako.

manifestado públicamente por el propio Alcalde, el futuro Antzoki tendrá un coste de construcción de 30 millones de euros que como mínimo supondrán a las arcas municipales un GASTO ANUAL DE 2.892.183 € en prestamos bancarios

Era berean, zentro berri horretan garatuko diren jarduerek orain arte Antzoki zaharrean garatutakoek zituzten galera berak izango dituzte gutxienez; hau da, urtean 481.242,77 €-ko galerak.

Asimismo podemos considerar que las actividades a desarrollar en este nuevo centro tendrán, como mínimo, las mismas perdidas que las que hasta ahora se desarrollaban en el antiguo Antzoki, es decir, unas pérdidas anuales de 481.242,77 €.

Hala ere, Alkateak adierazi du Antzokian kultur-jarduera gehitu nahi duela, inguruneko gainerako kultur-jardueren parean jartze aldera.

Sin embargo el Alcalde manifiesta que pretende aumentar la actividad cultural del Antzoki para asemejarse a otras actividades culturales del entorno.

Inguruko antzokien kostu/irabazien emaitzak aztertzen baditugu, ondorengoa egiaztatu ahal izango dugu:

Si analizamos los resultados de Coste/beneficio de los teatros del entorno, podemos comprobar que:

Arriaga Antzokia, galera: 5.305.128 €.
Barakaldo Antzokia, galera: 1.110.000 €.
Basauriko Social Antzokia, galera: 1.100.000 €.
Maestranza Sevilla, galera: 2.165.800 €.
Pérez Galdós (Kanariak), galera: 3.000.000 €.
Calderón (Valladolid), galera: 1.138.000 €.

Teatro Arriaga: pérdida 5.305.128 €.
Teatro Baracaldo: pérdida 1.110.000 €.
Teatro Social de Basauri: pérdida 1.100.000 €.
Maestranza Sevilla: pérdida 2.165.800 €.
Pérez Galdós (Canarias): pérdida 3.000.000 €.
Calderón (Valladolid): pérdida 1.138.000 €.

Beraz, Antzokian jarduerak gehitzearekin, galerak gehituko lirateke. Esate baterako, Arriaga Antzokiaren parean jartzeak urtean 5.305.128 euroko gastua sortuko luke, aurrean aipatutako 481.242,77 euroko gastuen ordez.

Por lo tanto, parece sensato considerar que, un aumento de actividades del Teatro supondrá aumentar las pérdidas, por ejemplo equipararnos al Teatro Arriaga supondrá 5.305.128 euros de gastos anuales en lugar de los 481.242,77 antes citados.

Gainera, aurkeztutako proiektuaren arabera, etorkizuneko azpiegitura horretan, Musika Eskolaren Delegazioa

Además, según el proyecto presentado, este futura infraestructura dispondrá de una Delegación de la Escuela de

egongo da; beraz, instalazio horren urteko gastua gehitu behar litzaioke, azken bost urteetan Las Arenasen batez beste 1.516.824 €-ko galerak izan baititu.

Música, por lo tanto debemos añadir el gasto anual de esta instalación que en los últimos cinco años en Las Arenas ha supuesto unas pérdidas medias de 1.516.824 €.

Pentsatzekoa da galera horiek edo horien oso antzekoak izango direla Algortako delegazio berrian.

Es de suponer que estas mismas o muy parecidas pérdidas se producirán en una nueva delegación en Algorta.

AZKEN EMAITZA

RESULTADO FINAL

Musika Eskolaren galerak: 1.516.824 €.

Gelako jardueren galerak: 481.242,77 €.

Finantza-gastuak: maileguak: 2.892.187,52 €.

Antzoki berriaren urteko kostua: 4.890.254,00 €.

Resultado Escuela Música: Pérdidas 1.516.824 €.

Resultado Actividades Aula: pérdidas 481.242,77 €.

Gastos Financieros: préstamos 2.892.187.52 €.

Total coste anual del nuevo Antzoki a pagar 4.890.254,00 €.

Gastu horietan sartu gabe daude funtzionamenduaren gastuak; hau da, langileak, elektrizitatea, ura, segurtasuna, instalazioak, e.a. Ziur aski, gastu handiak izango dira.

No incluimos los gastos que supondrá el funcionamiento en sí mismo, como personal, electricidad, agua, seguridad, instalaciones etc. que supondrán un importe elevado.

2010. urte honetan, soilik 6 milioi euro izan baditugu inbertsioak egiteko (gainerakoa Udalaren pertsiana irekitzeko konprometitua dago, gastu arruntak), pentsatu behar dugu baldintza berdinetan urtean soilik milioi bat euro geratuko zaizkigula herrian inbertitzeko (farolak, kaleak, ibilgailuak, e.a.).

Si tenemos en cuenta que este año 2010 solo hemos tenido 6 millones de euros para inversiones (el resto esta comprometido en abrir la persiana del ayuntamiento, gasto corriente) deberemos pensar que en igualdad de condiciones solo nos quedaría un millón de euros al año para invertir en el pueblo, reponer farolas, calles, coches etc.

Azkenik, aurrekoak baino aurreikuspen seguruagoen arabera bideragarritasun-azterketa egiten badugu, baliteke obrak azkenean 40 milioi euroko kostua izatea, eta Arriagaren antzeko jarduera jorratu nahi badugu, urteko gastuak izugarri igoko lirateke.

Por último, si hacemos un análisis de viabilidad de acuerdo a una previsiones más ciertas que las anteriores, podemos considerar que es posible que la obra tendrá un coste final de 40 millones de euros y si queremos realizar una actividad similar al Arriaga, los gastos anuales se disparen

Musika Eskolaren galerak: 1.516.824,00 €.
Arriagako Jardueren galerak: 5.305.128,00 €.
40 milioiko maileguen finantza-gastuak: 3.856.250,03 €.

Resultado Escuela Música: Pérdidas: 1.516.824,00 €.
Resultado Actividades Arriaga: Pérdidas 5.305.128,00 €.
Gastos Financieros préstamos 40 mill. 3.856.250,03 €.

Guztira, galerak (Alkatetzaren hipotesia): 10.678.202, URTEAN HAMAR MILIOI EUROKO GALERAK.

Total pérdidas hipótesis Alcaldía: 10.678.202 DIEZ MILLONES DE EUROS ANUALES DE PÉRDIDAS.

Azkenik, bideragarritasun-plan guztien barnean, Merkatuaren azterketa egin behar da jardueraren potentzialtasunak aztertze aldera; ingurunean, ordea, azterketa erdiragarria eskaintzen digu.

Por último dentro de todo plan de viabilidad se debe realizar un estudio de Mercado sobre potencialidades de la actividad, sin embargo un análisis del entorno no puede ser más descorazonador.

Proiektuaren asmoa da 700 lagunentzako aretoa egitea, diru-sarrerak gehitzearren. Errealitatea, aldiz, setatia da, eta esan dezakegu Euskal Herrian antzokian batez beste 300 lagun biltzen direla saio bakoitzeko:

La idea de este proyecto supone ofrecer una sala para teatro de 700 personas, con ello pretenden aumentar los ingresos, sin embargo la realidad es tozuda y así podemos constatar que la ocupación media de los teatros en el País Vasco apenas alcanza las 300 personas por sesión:

Gaur egun jasotako informazioa:

De la información recogida al día de hoy podemos observar que

- Getxoko jardueren batez besteko okupazioa: 300 pertsona (2007. urteko memoria, Kultura Gela).
- Euskadiko Antzokien batez besteko okupazioa: 338 pertosna (Eustat 2005).
- Euskadiko Antzokien batez besteko okupazioa: 283 (Antzokien Euskal Sarea 2007).
- Barakaldoko Antzokiaren okupazioa: 147 pertsona (2008ko Memoria).

- Ocupación media actividades Getxo es de 300 personas (memoria anual 2007 Aula de Cultura).
- Ocupación media teatros Vascos 338 personas (Eustat 2005).
- Ocupación media teatros Vascos 283 (Red Vasca de Teatros 2007).
- Ocupación teatro Barakaldo 147personas (memoria 2008).

Beraz, 700 besaulkirentzako aretoa eraikitzeak ez du batez besteko okupazioa ziurtatzen (berriro diogu

Por lo tanto, la construcción de un patio para 700 butacas no asegura su ocupación media (reiteramos que en

Getxon batez beste 300 pertsona biltzen direla).

Getxo la ocupación media ha sido de 300 personas).

Era berean, proposatutako instalazio-motaren arabera, ezingo dira eraikin horretan egin Geltokiko Plazako karpetan egiten diren jarduera jendetsuak (folka, habanerak, Komikiaren Aretoa, e.a.); hortaz, jarduera horientzat beste irtenbide bat bilatu behar da.

Asimismo, dado el tipo de instalación proyectada no se permitirá trasladar a este edificio las actividades masivas que se hacen en las carpas de la Plaza de la Estación (Folk, Habaneras, Salón del Comic etc), por lo que es necesario buscar otra solución a estas actividades.

Arriaga Antzokiak bakarrik lortzen du 700 plazen batez besteko okupazioa, baina aurrean adierazitakoa azpimarratu nahi dugu; alegia, Arriagako jarduerak eginez gero, Antzokiak urtean 9.714.139 euroko galerak izango lituzke, eta kopuru hori ezin du inolaz ere onartu Udal honek.

El único teatro con ocupación media de 700 plazas es el Teatro Arriaga pero reiteramos lo expuesto anteriormente, las pérdidas del Antzoki con las actividades del Arriaga supondría unas perdida anuales de 9.714.139 €, cantidad inasumible por este Ayuntamiento.

Hori guztia dela-eta, Udal Alderdi Popularraren ustez, Proiektua onartu baino lehen, beharrezkoa da Getxo Antzokirako Bideragarritasun Plana lehenbailehen egitea, proiektu horrek aurrerantzean Udalaren diru-kutxak hipotekatuko baititu.

Por todo ello el Grupo Municipal Popular considera urgente la inmediata redacción, siempre antes de la aprobación del Proyecto, de un Plan de Viabilidad para el proyecto del Getxo Antzoki pues se trata de un proyecto que hipotecará las arcas municipales de aquí en adelante

Ondorioz, Udal Alderdi Popularrak ondorengo akordio-proposamena aurkezten du, eztabaidatu eta onartua izan dadin:

Por todo ello el Grupo Municipal del Popular de Getxo presenta la siguiente propuesta de acuerdo al Pleno, para su debate y aprobación:

LEHENA: ahalik eta azkarren kontratatzea Getxo Antzokiaren azpiegitura berriarentzat Bideragarritasun Plana egiteko lanak.

PRIMERO: Que a la mayor brevedad posible se contrate la elaboración de un Plan de Viabilidad de la nueva infraestructura del Getxo Antzokia.

BIGARRENA: Bideragarritasun Planaren kopia Udal honetako alderdi politikoei bidaltzea eta Udalaren web orrialdean argitaratzea.

SEGUNDO: Que se remita a los partidos políticos de este Ayuntamiento y se haga pública en la Web municipal copia del citado Plan de Viabilidad. .

HIRUGARRENA: mozio honen berri ematea udal-komunikabideetan".

TERCERO.- Que se informe de la presente moción en los medios de

comunicación municipales".

Andrade jaunak esan du Alkateak prentsan adierazi zuela kultur jarduerei dagokienean kontuan izan behar dela errentagarritasun soziala eta ez ekonomikoa. Horrek kezkatzen du; izan ere, Udalak ezin ditu urtean 10 milioi euroko galerak izan, Udalaren baliabideekin kopuru horiei aurre ezin zaielako egin, are gehiago 2011. urtean ere krisiarekin jarraituko dugulako, baina horrelako errealitateak badira. Gainera, Bizkaiko Foru Aldundiari itzuli behar zaio Udalkutxan kobratutako soberakina, eta EAJk eta PSEk 2010eko aurrekontuan itundutako konpromisoak 2011n ordaindu behar dira (diru-kopuru esanguratsuak). Inguruko Antzokien eta Biltzar Jauregien kudeaketako emaitza ekonomikoen datuen arabera, galerak garrantzitsuak direnez, beharrezkoa da bideragarritasun-azterketa egitea dagozkion erabakiak hartzeko. Amaitzeko, esan du alderdi Popularra Algortan Antzokia egitearen alde dagoela, baina, tamainari dagokionez, udalerriaren errealitatera egokitu behar dela.

Indica el Sr. Andrade que el Alcalde manifestó en la prensa que en las actividades culturales el valor a tener en cuenta es la rentabilidad social y no la económica, lo cual le preocupa ya que existen realidades como que el Ayuntamiento no puede asumir pérdidas de 10 millones de euros anuales porque no hay posibilidad de hacer frente a esos importes con los recursos del Ayuntamiento, máxime cuando el próximo año 2011 va a continuar la crisis y además hay que reintegrar a la Diputación Foral de Bizkaia el exceso cobrado en Udalkutxa y asumir a compromisos que el presupuesto del año 2010 pactado por el PNV y el PSE ha trasladado al año 2011 con importes económicos significativos. Da datos sobre resultados económicos de la gestión de teatros y palacios de congresos del entorno que arrojan pérdidas importantes, por lo que insiste en la necesidad de un estudio de viabilidad para tomar las decisiones oportunas. Finaliza insistiendo en que el grupo Popular apoya el proyecto de un Antzoki para Algorta, pero que tiene que ser adecuado en su dimensión a la realidad del municipio.

Joseba Arregik Gobernu taldearen izenean esan dio mozioan jasotako zifrak sinestezinak direla, oinarririk eta justifikaziorik ez izateagatik. Inbertsio-kontzeptuak jarduera eta ustiapenarekin nahasten ditu, aurrez definitutako ondorioz lortze aldera. Kultura ekononomiaren motorea da, behin azpiegiturak egin eta gero, eta, alderdi Popularraren arabera, azpiegiturak egitea izan ditzaketen galerekin lotu behar bada, polikiroldegiak, eskolak eta baita Udal

Joseba Arregi en nombre del equipo de Gobierno le indica que las cifras que se recogen en la Moción no son creíbles ya que no tienen ninguna base ni justificación, mezclando conceptos de inversión con actividad y explotación, para lograr una conclusión previamente definida. Manifiesta que la cultura es un motor de la economía, una vez que las infraestructuras están realizadas, y que de asumirse el planteamiento del grupo Popular de vincular la realización de las infraestructuras a las

Administrazioa bera ere itxi beharko lirateke. Gobernu taldeak ez daki zein den alderdi Popularrak Getxo Antzokiaren gainean duen proiektua, egungo proiektua bideratzen duten plangintzen aldaketa guztiak onartu badituzte ere. Iritzia aldatzen dutenez, ez dute inoiz proposamena argitzen. Getxok lehiatu egin behar du Bilbo Metropolitarraren ingurunearekin, eta behar adinako azpiegiturak behar ditu egin nahi diren kultur eskaintzetarako. Alderdi Popularrari nolako Getxo Antzokia nahi duten zehazteko eskatu dio; hobe idatziz, gainera. Alderdi Popularraren hurrengo mozioaren inguruan, Getxo Antzokiarekin lotuta, Telefonicaren eraikina erabiltzeko aukeraren inguruan, adierazi du gai hori dagoeneko eztabaidatu dutela eta Telefonica erostea bideraezina dela, argumentu teknikoetan oinarrituta, Hirigintzako Informazio Batzordearen hurrengo bileran azalduko duten moduan. Azpimarratu du Gobernu taldeari dagokiola kudeaketa egitea eta Osoko Bilkurari kontrolatzea. Lanean jarraituko dute alderdi politikoekin eta bizilagunekin hartutako akordioak errespetatuaz.

posibles pérdidas, habría que cerrar polideportivos, escuelas o incluso la propia administración municipal. Manifiesta que el equipo de Gobierno desconoce cual es el proyecto del grupo Popular sobre el Getxo Antzokia, pese a que han aprobado todas las modificaciones de planeamientos que posibilitan el actual proyecto, pero que van cambiando de opinión y no aclaran nunca su propuesta. Estima que Getxo tiene que competir en el entorno del Bilbao Metropolitano y que necesita infraestructuras de tamaño suficiente para las ofertas culturales que se pretenden realizar. Pide al grupo Popular que concrete su propuesta, y mejor por escrito, respecto a qué proyecto de Getxo Antzokia quieren. En relación a la siguiente Moción del grupo Popular que es vinculada al tema del Getxo Antzokia y se relaciona con la posible utilización del edificio de Telefónica, manifiesta que es un tema ya debatido y que la adquisición de Telefónica es inviable, tal como lo explicarán, en base a argumentos técnicos, en la próxima Comisión Informativa de Urbanismo. Insiste que es al equipo de Gobierno al que corresponde realizar la gestión y al Pleno controlar, y que van a seguir trabajando respetando los acuerdos que han adquirido con los grupos políticos y con los vecinos.

Basanta jaunak, Alternatibaren izenean, esan du bideragarritasun-azterketa egitea beharrezkoa dela, eta azterketarik ez badago proiektuak indarrik ez duela irudituko dela, onartuta ez egoteagatik eta adostasun politikorik ez izateagatik, ezta herritarrekin ere. Azterketan, bideragarritasun ekonomikoaz gain, proiektuaren iraunkortasuna ere jaso behar da.

El Sr. Basanta en nombre de Alternatiba manifiesta que espera que exista un estudio de viabilidad, ya que lo estima necesario, y si es que no existe va a parecer que el proyecto no tiene vigencia, ya que ni está aprobado, ni hay consenso político, ni con los ciudadanos, y recuerda que el estudio debe contener, además de la viabilidad económica, también la sostenibilidad del proyecto.

Almansa jaunak adierazi du Mozioaren aurka bozkatuko dutela, kulturaren kontzeptu merkantilista eta neoliberala baitu, eta horrekin ez datoz bat. Jarduera batzuk defizitarioak dira; hala nola, kultur, kirol eta gizarte arlokoak, eta Getxo Antzokiaren superabita edo defizita eraikinaren eta kudeatzeko gaitasunaren araberakoa izango da. Egoitza bezalako zerbitzuetan, iazko ekitaldian bi milioi euroko defizita egon zen; baita, Getxo Kirolak-en eta abarretan. Hala ere, ez da proposatu kuotak igotzerik edota zerbitzuak kentzerik.

El Sr. Almansa manifiesta que van a votar en contra de la Moción, ya que parte de un concepto mercantilista y neoliberal de la cultura que no comparten. Recuerda que hay actividades deficitarias como son las culturales, deportivas y sociales, y que el superávit o déficit del Getxo Antzokia estará en función del edificio y de la capacidad de gestión. Recuerda que en servicios como la Residencia ha habido un déficit de dos millones de euros el pasado ejercicio; también existe déficit en Getxo Kirolak, etc., y no se está planteando ni subir las cuotas ni suprimir los servicios.

Andrade jaunak Alternatibako zinegotziari adierazi dio ez dagoela bideragarritasun-azterketarik. Berriro esan du edozein jarduera ekonomikotan bideragarritasun-plana egiten dela, eta onartzen du kultura defizitarioa izatea, baina defizit hori baloratu eta neurtu behar da, onartzeko modukoa izan dadin. Mozioan jasotako datuak Udalaren beraren eta beste erakunde eta herri administrazioen datuetatik hartu dira. Behin eta berriz esan du Getxok ezin duela urtero 10 milioi euroko kopurua jarri Getxo Antzokiaren ustiapenerako. Haren ustez, bideragarritasun-plana beharrezkoa da proposatzen ari diren inbertsioaren ondoriok ezagutzeko.

El Sr. Andrade manifiesta al Concejal de Alternatiba que no existe ningún tipo de estudio de viabilidad. Insiste que en cualquier actividad económica se hace un plan de viabilidad y admite que la cultura es deficitaria, pero lo que hace falta es valorar y medir dicho déficit para que pueda ser asumible. Indica que los datos que se recogen en la Moción están extraídos de datos del propio Ayuntamiento y de otras entidades y administraciones públicas. Insiste también en que Getxo no puede dedicar cada año 10 millones de euros para la explotación del Getxo Antzokia. Cree necesario el plan de viabilidad para conocer los efectos de la inversión que se está planteando.

Basanta jauna ados dago talde Sozialistak esandakoarekin, baina alderdi ekonomikoak ere kontuan izan behar dira, eta bideragarritasun-plana egitea beharrezkoa da.

El Sr. Basanta manifiesta su conformidad con lo indicado por el grupo Socialista pero indicando que también hay que tener en cuenta los aspectos económicos, insistiendo en que es necesario el plan de viabilidad.

Andrade jaunak azpimarratu du bizilagunek zein alderdi politikoek erabakiak hartzeko behar den

El Sr. Andrade recalca la necesidad de que los vecinos y los grupos políticos tengan la información necesaria para

informazioa eduki behar dutela; beraz, bideragarritasun-plana beharrezkoa da, eta alderdi Popularrak, gobernurako aukera duen talde gisa, erabakiek zernolako ondorioak izango dituzten jakin nahi du, erabaki horiek hartu baino lehen.

tomar decisiones, por lo que es necesario el plan de viabilidad y el grupo Popular como grupo con opción al gobierno quiere saber los efectos de las decisiones antes de tomarlas.

Arregi jaunak adierazi du Getxo Antzokiaren proiektua Osoko Bilkurak onartu zuela, eta, inbertsio-plana eginda eta onartuta egoteaz gain, aurrekontuetan jasota dagoela, eta ustiapen-gastuak urte bakoitzeko aurrekontuetan agertzen direla.

El Sr. Arregi manifiesta que el proyecto del Getxo Antzokia ha sido tomado por el Pleno, y el plan de inversión está hecho y aprobado y figura en los presupuestos, y que los gastos de explotación figuran en los presupuestos de cada año.

Basanta jaunak azaldu du Alternatibak bideragarritasun-plana egitea eskatzen duela, gastuak aztertze aldera, nahiz eta jakin kultura defizitarioa dela. Gobernu taldeari esku artean dituen gastuak agertzea eskatu dio.

El Sr. Basanta manifiesta que Alternatiba pide un plan de viabilidad que analice una proyección de gastos, sin perjuicio de asumir que la cultura será deficitaria y pide al equipo de Gobierno que aporte los gastos de que dispone.

Mozioa bozkatu dute, eta bertan behera geratu da. Botoak honela banatu dira: PPren eta Alternatibaren aldeko 11 boto eta EAJren eta PSE-EEren aurkako 14 boto.

Sometida la Moción de referencia a votación, es rechazada al obtener 11 votos a favor del PP y Alternatiba, y 14 en contra del PNV y PSE-EE.

Mercedes Angulo zinegotzia bileratik atera da.

Se ausenta la Concejala Mercedes Angulo.

**27.- UDAL ALDERDI POPULARRAK AURKEZTUTAKO MOZIOA, GETXO ANTZOKIAREN ALTUERA MURRIZTEARI ETA ETXEBIZITZETATIK URRUNTZEARI BURUZKOA**

**27º.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL POPULAR S/REDUCIR ALTURA Y ALEJAR CONSTRUCCIÓN DEL GETXO ANTZOKIA DE LAS VIVIENDAS.**

Getxo UDALA • AYUNTAMIENTO

Eduardo Andradek ondorengo mozioa irakurri du:

"GETXO ANTZOKIAREN ALTUERA MURRIZTEA ETA ETXEBIZITZETATIK URRUNTZEA

2010eko urtarrileko bilkuran, gehiengo osoarekin onartu zen ondorengoa:

"Proiektuaren azterketa xehekatua ikusita, ikus daiteke eraikina neurriz kanpo geratzen dela kokatu nahi den zonan; hau da, espazio txikian gauza gehiegi jarri nahi dira".

Era berean, Osoko Bilkura honek onartu zuen Antzokiaren handitasuna txikitzeko irtenbideak bilatzea, Antzokia etxebizitzetatik urruntzea eta altuera murriztea, Getxoko milaka bizilagunek eskatzen duten moduan.

Halaber, makroproiektu hori murrizteko eta ingurunera egokitzeko irtenbide gisa onartu zuten Musika Eskola Getxo Antzokian dagoen Telefonicaren eraikinera eramatea.

Akordio-proposamen moduan, Bilkura honen gehiengo osoarekin ondorengoa onartu zen:

"LEHENA.- Ahalik eta azkarren hastea Espainiako Telefonicarekin kudeaketak, Bilbon duen Lurralde Ordezkaritzaren bitartez, Algortako Basagoiti etorbidean duen eraikina erosteko edo epe luzerako alokatzeko.

Eduardo Andrade da lectura a la siguiente Moción:

"REDUCIR ALTURA Y ALEJAR CONSTRUCIÓN DEL GETXO ANTZOKIA DE LAS VIVIENDAS

En el pasado pleno del mes de enero de 2010 quedó aprobada por mayoría absoluta de este pleno en el que quedaba asumido que:

"De un análisis detallado del proyecto, podemos comprobar que el edificio proyectado es desproporcionado respecto a la zona donde se quiere encajar, esto es, en poco espacio se quieren poner demasiadas cosas."

Asimismo se aprobó por este salón de plenos buscar soluciones a esta sobredimensión del Antzoki y a la necesidad de alejar el Antzoki de las viviendas y reducirlo en altura tal y como reclaman miles de vecinos de Getxo.

Como también quedó aprobado una posible solución para este objetivo de reducción de este macroproyecto y adecuarlo a su entorno puede consistir en trasladar la Escuela de Música al edificio de Telefónica situado en el Getxo Antzokia.

Como propuesta de acuerdo de aprobó por mayoría absoluta de este pleno:

"PRIMERO.- Que a la mayor brevedad posible se inicien las gestiones con Telefónica de España, a través de su Delegación Territorial en Bilbao, para proceder a la compra o alquiler a largo plazo de su edificio situado en la Avenida Basagoiti de Algorta.

BIGARRENA.- Espainiako Telefonicarekin egingo diren elkarrizketa eta bileretan, egun gobernu-taldean ez dauden alderdi politiko bakoitzeko ordezkari bat izatea, Telefonicaren planteamenduetan gardentasunez eta argitasunez jokatzearren…”.

SEGUNDO: Que en las citadas conversaciones y reuniones con Telefónica de España se encuentren presentes un representante de cada uno de los partidos políticos que actualmente no forman parte del equipo de gobierno, con objeto de dar transparencia y claridad a los planteamientos de telefónica…”

Ikusita Gobernu taldeak ez duela ezer egin eta Osoko Bilkuretan onartutako akordioak bete nahi ez dituela, udal talde honek Udal honetako alderdi politiko guztiak eta Antzokiko bizilagunak bilera batera deitu zituen Telefonicako Iparraldeko Zonako Lurralde Ordezkariarekin.

Ante la inactividad del equipo de gobierno, empeñado en no cumplir los acuerdos plenarios, este grupo municipal convocó a todos los partidos políticos de este ayuntamiento y a los vecinos del Antzoki a una reunión con el Delegado Territorial de la Zona Norte de Telefónica.

Bilera pasa den ostiralean, otsailaren 19an, egin zen, eguerdiko 12:30an, Telefonicak Bilboko Buenos Aires kaleko 10. zenbakian duen egoitzan, eta bilerara modu askean joan ziren joatea interesgarria izango zela pentsatu zuten alderdiak eta ANTZOKIA BAI BAINA HORRELA EZ elkarteko ordezkariak.

La reunión se celebró el pasado viernes 19 a las 12.30 horas en la sede de Telefónica de la calle Buenos Aires, 10 de Bilbao y a ella asistieron libremente los partidos que consideraron interesante acudir y vecinos representantes de la asociación ANTZOKI SI PERO ASÍ NO.

Bilera horretan, Telefonicakoek azaldu ziguten eraikineko solairu bat edo hainbat alokatzeko aukera bazegoela, eraikin horretan Musika Eskola jartzea aldera.

En la citada reunión desde Telefónica se nos explicaron las posibilidades reales de adquirir mediante la formula del alquiler de una o varias plantas de su edificio para poder instalar en ese edificio la Escuela de Música.

Asmoa da Antzokiko bigarren moduluko lur gaineko solairuak murriztea edo kentzea; alegia, beste leku batera eramatea lur gainean egun pentsatuta dagoena (4 bulego, gela handi 1, 9 instrumentu-areto eta 6 gela kolektibo). Modu horretan, espazio hori libre geratuko litzateke San Nikolas plazarekin segida izango lukeen parke publiko handi bat sortzeko. Era berean, Antzokia gertuko etxebizitzetatik urrunduko litzateke eta dentsitate altua

Recordamos que la idea consiste en reducir o eliminar las plantas en superficie del módulo dos del Antzokia esto es, trasladar a otro lugar lo que actualmente esta proyectado en superficie 4 despachos, 1 aula grande, 9 salas de instrumentos y 6 aulas colectivas, liberando este espacio para crear un gran parque público que tendría continuidad con la Plaza de San Nicolás, asimismo se alejaría el Antzoki de las viviendas cercanas,

kendu, espazio irekiagoa eta bizilagunentzat atseginagoa sortzeko helburuarekin.

descargando a la zona de la alta densidad proyectada, creando un espacio más abierto y amable para los vecinos .

Jakina, Telefonicaren instalazio horiek alokatzea bigarren moduluko lurrazaleko solairuak (Musika Eskolarako) eraikitzea baino askoz ere gutxiago kostatuko da, eta, proiektutik gertu izateak, bi eraikin horien sinergiak mantentzeko aukera eskaintzen du.

Desde luego alquilar estas instalaciones de Telefónica tendrá un coste muy inferior que la construcción de las plantas en superficie del modulo dos, destinado a la Escuela de Música y su cercanía al proyecto permite mantener las sinergias de estos dos edificios.

Proiektua egin duen arkitektoak aztertu beharko luke Telefonicaren eraikina proiektuan sartzeko edo egun dagoen bezala uzteko aukera.

Quedaría en manos del arquitecto autor del proyecto, la posibilidad de integrar en el proyecto el edificio de telefónica o dejarlo tal y como se encuentra en la actualidad.

Horixe da oposiziotik egin genezakeena. Telefonica alokatzeko aukera egon badago, benetakoa da, bideragarria, ziur aski egun proposatutakoa baino merkeagoa; gainera, Getxoko bizilagunek eskatutako eskaerarik nagusiena betetzen du, inpaktua gutxitu eta berdegune zabalak irekitzen baititu.

Hasta aquí se puede llegar desde la oposición, la posibilidad de alquilar el edificio de telefónica existe, es cierta, es viable, seguramente más económica que la planteada actualmente y además satisface una de las principales demandas de los vecinos de Getxo al reducir su impacto y liberar amplias zonas verdes.

Hori guztia dela-eta, Getxoko Udal Alderdi Popularrak ondorengo akordio-proposamena aukezten du, eztabaidatu eta onartua izan dadin:

Por todo ello el Grupo Municipal del Popular de Getxo presenta la siguiente propuesta de acuerdo al Pleno, para su debate y aprobación:

LEHENA: Telefonica bere eraikina Udalari alokatzeko edo saltzeko prest agertu denez, Espainiako Telefonicarekin, Bilbon duen Lurralde Ordezkaritzaren bitartez, kudeaketak hastea Algortako Basagoiti etorbidean duen eraikina erosteko edota epe luzera alokatzeko.

PRIMERO: Que visto el interés de Telefónica por alquilar o vender su edificio a este Ayuntamiento, se inicien las gestiones con Telefónica de España, a través de su Delegación Territorial en Bilbao, para proceder a la compra o alquiler a largo plazo de su edificio situado en la Avenida Basagoiti de Algorta.

BIGARRENA: proiektuaren arkitekto zuzendariari argibideak ematea

SEGUNDO: Que se den instrucciones al arquitecto director del proyecto para

Antzokiaren altuera jaisteko eta eraikina bera etxebizitzetatik urruntzeko, eta kontuan izatea Telefonicaren eraikina proiektuan sartzeko aukera, Musika Eskolaren egoitza gisa.

HIRUGARRENA: Espainiako Telefonicarekin egingo diren elkarrizketa eta bileretan, egun Gobernu taldean ez dauden alderdi politiko bakoitzeko ordezkariak izatea, Telefonicaren proposamenei gardentasuna eta argitasuna ematearren.

LAUGARRENA: mozio honen berri ematea udal komunikabideetan".

que rebaje en altura y aleje de las viviendas el futuro Antzokia y considere la posibilidad de integrar el edificio de telefónica en el proyecto como sede de la Escuela de Música.

TERCERO: Que en las citadas conversaciones y reuniones con Telefónica de España se encuentren presentes un representante de cada uno de los partidos políticos que actualmente no forman parte del equipo de Gobierno, con objeto de dar transparencia y claridad a los planteamientos de telefónica.

CUARTO.- Que se informe de la presente moción en los medios de comunicación municipales."

Andradek Getxoko Antzoki zaharraren ibilbidea ekarri du gogora. 400 eserleku zituen, eta ez ziren denak betetzen. Orduan, EAJk bakarka erabaki zuen ideien proiektua deitzea Getxoko Antzoki berria egiteko; baita ere, inor gabe erabaki zuen zein izango zen proiektu irabazlea, ondoren Udaleko gainerako alderdi politikoei jakinarazteko. Halaber, EAJk bakarrik aldatu zuen proiektua goitik behera eta gero gainerako alderdiei horren berri eman zien. Andradek esan du aurkeztutako proiektua alderdi Popularraren gustukoa dela. Gainera, garai batean leku zabalagoa behar zela adierazi zuen, Geltoki plazako karpetan egiten diren jarduerak Getxo Antzokian egitearren, baina ideia hori ez zuen Gobernu taldeak onartu. Aitortzen du Hiri Antolamenduko Plan Nagusiko aldaketak onartu dituztela, proiektua bideratzen dutenak, baina beti eraikigarritasuna agortzearen aurka agertu dira, eta denborarekin ikusten

Andrade recuerda la trayectoria del Getxo Antzoki antiguo que contaba con 400 localidades que no se llenaban, y entonces el PNV en solitario decidió convocar un proyecto de ideas para un nuevo Getxo Antzokia, y decidió también en solitario cual iba a ser el proyecto ganador, para posteriormente comunicar al resto de los grupos políticos del Ayuntamiento; y también el PNV en solitario cambió sustancialmente el proyecto y luego lo comunicó al resto de los grupos. Manifiesta que el proyecto presentado es del agrado del grupo Popular que en su día manifestó la necesidad de un aforo más amplio para trasladar al Getxo Antzokia las actuaciones que se realizan en las carpas de la Plaza de la Estación, pero fue una idea no asumida por el equipo de Gobierno. Reconoce que han aprobado las modificaciones del Plan General de Ordenación Urbana que posibilitan el proyecto pero que siempre han indicado su voluntad

dute proiektua gehiegi handitzen ari dela; beraz, eraikina birdoitzea eskatzen dute. Irtenbide gisa, Telefonicaren eraikina eskuratzeko aukera ematen dute. Era berean, esan du Arregi jauna gezurretan zebilela Telefonicak ez zuela saldu nahi esan zuenean; izan ere, bilera egin zuten Telefonicako iparraldeko zonako zuzendariarekin eta bizilagunekin, eta bilera hartara alderdi guztiak gonbidatu zituzten. Horrela, zuzendariak esan du Udala ez dela Telefonicara zuzendu. Baita ere adierazi du Telefonicaren eraikina erosteko proposamenak ondorioak izango lituzkeela proiektuan, hots, sestraren gainean dauden zonetan, ez eraikitzen ari direnaren gainean, eta aparkalekuan. Arregiri gezurretan ibiltzea leporatzen dio, alderdi Popularrak ez zuela aparkalekurik nahi adierazi baitzuen prentsan, alderdi Popularrak zonan aparkalekuak behar zirela esan zuen bitartean. Gezurra da, baita ere, dena bota nahi izatea, sestraren gainean ezer ez egoteagatik. Amaitzeko, esan du Telefonicarekin egindako bileran ordezkariak lau solairu saltzeko prest agertu zirela; hau da, 1.392 m2, gehi proiektuan Musika Eskolarako aurreikusita daudenak.

contraria a que se agote la edificabilidad, y con el paso del tiempo están viendo que el proyecto se está sobredimensionando, por lo que piden un reajuste de la edificación. Para solucionar la cuestión plantean la posibilidad de adquirir el edificio de Telefónica y manifiesta que el Sr. Arregi cuando indicó que Telefónica no quería vender era mentira, ya que el director de la zona norte de Telefónica con el que se han reunido, juntamente con vecinos, y al que invitaron a todos los grupos municipales, ha manifestado que el Ayuntamiento no se ha dirigido a Telefónica. Recuerda también que la propuesta de adquirir el edificio de Telefónica tendría efectos en el proyecto en las zonas que van por encima de la rasante y no sobre lo que se está edificando y el aparcamiento. Acusa de mentir al Sr. Arregi, ya que había dicho en la prensa que el grupo Popular no quiere aparcamientos, cuando fue el grupo Popular el que planteó la necesidad de aparcamientos en la zona, y tampoco es cierto que quieran derribar nada ya que no hay nada sobre la rasante. Finaliza manifestando que en la reunión con Telefónica sus representantes manifestaron que estaban dispuestos a vender cuatro plantas que supondrían 1.392 m2. de superficie, más que los que están previstos en el proyecto para la Escuela de Música.

Basanta jaunak Alternatibaren izenean adierazi du Telefonicarekin egindako bileran izan zela, baina alderdi politikoen inguruan eztabaida honetan ematen ari diren irudia (gezurretan ibiltzea) lotsagarria iruditzen zaiola. Haren ustez, onena da udalerriko herritarrak eta soilik inguruko bizilagunak proiektuarekin ados dauden ala ez jakitea. Basanta jaunak ez

El Sr. Basanta en nombre de Alternatiba manifiesta que acudió a la reunión con Telefónica, pero la imagen que se está dando de los grupos políticos en este debate, de acusaciones de mentiras le parece vergonzosa. Cree que lo procedente es saber si la ciudadanía del municipio, y no únicamente los vecinos colindantes, están de acuerdo con el proyecto. Indica que no va a apoyar la

du Mozioa bultzatuko; izan ere, Telefonicaren eraikinak arazo batzuk baditu, hots, telefonia mugikorreko antena handi bat edukitzea, eta hori eraikin publiko batean egotea pasako litzateke, horrek dakartzan arazoekin, Gobernu taldeak adierazitako arazo guztiez gain. Amaitzeko esan du, Mozioan agertzen denak, altuerak jaisteak eta eraikina etxebizitzetatik urruntzeak, helburu bakarra duela; alegia, bizilagunak pozik uztea.

Almansa jaunak adierazi du alderdi Sozialistak Getxoko Antzokiaren aldeko apustua egiten duela Getxoko udalerri osoarentzat. Aurreko bilkuran Telefonicaren eraikinaren aukera aztertzeko proposamena bultzatu zuen, baloratu gabe bazter ez zedin; beraz, kasu horretan, erantzukizunez jokatu zuen. Alderdi Sozialistak kontu hori aztertzeko, proiektuaz kanpoko arkitektoen aholkularitza jaso du, eta ondorio batera iritsi dira; hau da, proposatzen dena teknikoki eta ekonomikoki ez dela bideragarria. Telefonicaren partzela okupatzearekin, eginda dagoen proiektua erabat aldatu beharko litzateke, dagoen solairua aldatzean; beraz, hasieratik hasi beharko litzateke, proiektua egiten gastatutakoa galdu eta denbora ere bai, egungo indusketa-lanak denbora luzean geratu behar izateaz gain. Musika Eskola jartzeko Telefonicaren eraikina erosteko edo alokatzeko aukera baztertzen dute, zerbitzu horren proiektu berria egin behar izateagatik eta Getxo Antzokiaren egungo proiektuaren zatia aldatu beharragatik, aurrean aipatu moduan, horrek ekonomia eta denbora aldetik dakarren galera eta guzti. Gainera, Telefonica eraikinaren tipologia bereziak dezente zailtzen du bertan ezar daitekeenaren antzeko ekipamendu hain

Moción ya que el edificio de Telefónica tiene problemas como son la existencia de una gran antena de telefonía móvil, que pasaría a estar ubicada en un edificio público con los problemas que ello contrae, además de todos los problemas manifestados por el equipo de Gobierno. Finaliza indicando que estima que lo que la Moción manifiesta de rebajas de alturas y alejamiento del edificio proyectado, tiene como única finalidad contentar a unos vecinos.

El Sr. Almansa manifiesta que el grupo Socialista apuesta por el futuro Getxo Antzokia para todo el municipio de Getxo e indica que en el Pleno pasado apoyó la propuesta de que se estudiara la posibilidad del edificio de Telefónica a fin de que no fuera rechazada sin valorarla, realizando en ese caso un ejercicio de responsabilidad. Indica que el grupo Socialista ha estudiado el asunto con asesoramiento de arquitectos ajenos al proyecto y han llegado a la conclusión de que técnica y económicamente es inviable lo que se plantea, ya que ocupar la parcela de Telefónica para el proyecto es cambiar absolutamente el proyecto existente al alterarse el solar disponible, que es una cuestión clave, y supondría empezar de nuevo con la pérdida de lo gastado en el proyecto y gran afección temporal, además de tener que paralizar largo tiempo las obras de excavación actuales. Respecto a la posibilidad de comprar o alquilar el edificio de Telefónica para ubicar a la Musika Eskola lo descartan, ya que obligaría a un nuevo proyecto de ese servicio, y a modificar parte del proyecto actual del Getxo Antzokia con la afección económica y temporal antes indicada. Además recalca que la tipología especial de edificio de Telefónica dificulta en gran manera la posibilidad

espezifikoaren aukera. Urtarrilean mozioa bozkatu zutenean, ez zen aztertzeko betarik izan, osoko bilkura baino egun gutxi batzuk aurretik aurkeztu baitzen; orain, ordea, denbora izan dute aztertu eta jarrera finkatu ahal izateko. Ondorioz, Getxo Antzokiaren proiektua babesten dute desadostasunik gabe, eta laguntza horren eta erantzukizunaren seinalea da Espainiako Gobernutik proiektu horretarako lortzen ari diren finantzaketa. Berriro aipatu du proiektuak dagoen bezala errespetatzen duela solairuko okupazioa eta Osoko Bilkuran onartutako hirigintza-araudian jasotzen diren eraikigarritasuna eta altuerak. Orduan alderdi politikoak ez ziren horren kontra agertu, eta udal alderdi bakar batek ere ez zituen babestu Etxeandia apezpikuaren kaleko bizilagunek horren inguruan egindako alegazioak. Haren ustez, proiektua oso ondo diseinatu da, eta bilakaera positiboa izan du bizilagunen eta elkarteen ekarpenekin; oraindik ere hobetzen jarrai dezake, gainera. Egungo diseinuan, zonako espazio publikoak zabalagoak dira lehen zeudenak baino, eta ekipamendu berriarekin aurreko eraikinen ia alineazio berak mantentzen dira; gainera, sartuko diren materialek ikusmen-inpaktua urrituko dute.

de un equipamiento tan específico como el que se podría implantar en el mismo. Recuerda que cuando se votó la Moción en enero no hubo tiempo de estudiar la misma, ya que se presentó pocos días antes de la fecha de la sesión plenaria, y ahora si han tenido tiempo para poder estudiar y fijar su posición. Consecuentemente dan su respaldo sin fisuras al proyecto del Getxo Antzokia y un reflejo de dicho apoyo y de responsabilidad es la financiación que se está logrando desde el Gobierno de España para dicho proyecto. Insiste en que el proyecto en su estado actual respeta la ocupación en planta y edificabilidad y alturas que recoge la normativa urbanística que se aprobó en el Pleno, sin que ningún grupo municipal se posicionara en contra, como tampoco ningún grupo municipal apoyó las alegaciones de los vecinos de la calle Obispo Echeandia al respecto. Cree que el proyecto está muy bien diseñado y que ha evolucionado positivamente con las aportaciones de vecinos y asociaciones, y que aún puede seguir mejorando. Recuerda que el diseño actual amplía los espacios públicos de la zona sobre los anteriormente existentes, y que además el nuevo equipamiento mantiene prácticamente las mismas alineaciones que los edificios anteriores, con un impacto visual minimizado por los materiales que se van a incorporar.

Arregi jaunak adierazi du Udalak harremanak izan dituela Telefonicarekin, 2002, 2004 eta 2005 urteak geroztik, eta egungo legealdian harreman errazak dituela Telefonicako estamentu ezberdinekin, Getxo Antzokiaren proiektuak bultzatuta. Gobernu taldea Telefonicako zein kargurekin bildu den esan du, higiezinen eremuan erantzukizuna

El Sr. Arregi indica que el Ayuntamiento ha tenido contactos con Telefónica desde los años 2002, 2004 y 2005 y que en la actual legislatura tiene contactos fluidos con diversos estamentos de Telefónica, y también motivados por la ejecución del proyecto del Getxo Antzokia. Enumera los diferentes cargos de Telefónica con los que se reunido el equipo de Gobierno,

duten karguak, hain zuzen ere. Telefonicako lurralde-zuzendariari dagokionez, berriz, harekin hitz egiten saiatu dira, eta haren deiaren zain daude.

cargos con responsabilidad en el ámbito de los inmuebles, y en relación al director territorial de Telefónica han intentado hablar con él y están esperando su llamada.

Andrade jaunak Gobernu taldea berriro gonbidatu du Telefonicako lurralde-zuzendariarekin martxoaren hasiera aldera egingo duten bilerara joateko, Telefonicaren eraikina ikusi eta alokatzeko edo saltzeko eskaintzak entzutearren. Gobernu taldeari eskatu dio aukera horiek azter ditzala, eta gogoratu du arkitekto zuzendariarekin aukera horiek aztertzeko eta horien gaineko informazioa emateko harremanetan jarri nahi izan dutenean, Alkateak debekatu egin duela arkitekto zuzendaria Alderdi Popularrarekin biltzea. Alkateak egindako adierazpenak ere zalantzan jartzen dituzte; izan ere, proeiktua ezin dela aldatu esaten du, eta etengabe aldatzen ari dira, bai materialak, leku batzuetan, altuera, e.a., bizilagunei inolako informaziorik eman gabe. Beraz, kudeaketan gardentasunez jokatzea eskatzen du. Azkenik, Almansa jaunari esan dio Mozioa onartu zuela Telefonicarekin harremanetan jartzeko, eta gero ez zela bilerara joan. Dena den, berriro ere iritziz aldatuko dela uste dute, normalean hala egiten duelako.

El Sr. Andrade reitera la invitación al equipo de Gobierno para que acuda a una reunión que van a tener con el director territorial de Telefónica los primeros días de marzo con el fin de ver el edificio de Telefónica y escuchar sus ofertas en las que manifiesta su voluntad de alquilar o vender, en su caso. Pide al equipo de Gobierno que se analicen esas posibilidades y recuerda que cuando han pretendido ponerse en contacto con el arquitecto director para que valore estas posibilidades, y le han pedido que informe acerca de las mismas, el Alcalde ha prohibido que el arquitecto director se reúna con el grupo Popular. También dudan mucho de las manifestaciones que realiza el Alcalde de que no se puede alterar el proyecto, y sin embargo se está alterando constantemente, ya que se han cambiado materiales, se ha rebajado en parte alturas, etc., sin informar nada a los vecinos, por lo que pide transparencia en la gestión. Finalmente manifiesta al Sr. Almansa que aprobó la Moción para entablar contactos con Telefónica y luego no asistió a la reunión, pero que no descartan que vuelva a cambiar de opinión como habitualmente lo hace.

Basanta jaunak salaketen jokoarekin jarraitzea kritikatu du, eta beste modu batera jokatu behar dela uste du.

El Sr. Basanta critica que se siga en el juego de las acusaciones y cree que debe actuarse de una manera diferente.

Almansa jaunak Alternatiba eta alderdi Popularrari erantzukizunez ez jokatzea kritikatu die. Hain zuzen ere, gainerako alderdi guztiekin batera onartu dituzte Hiri Antolamenduko Plan Nagusiko

El Sr. Almansa critica que Alternatiba y grupo Popular no actúen responsablemente, ya que han aprobado con todos los demás grupos las modificaciones del Plan General de

aldaketak; planean, Getxo Antzokiaren inguruan, solairua okupatzearen eta altueren diseinua jasotzen da. Gainera, alderdi guztiek baztertu zituzten bizilagunek egindako alegazioak, eta, orain, zabuka ibiliaz, jarrera aldatu dute bizilagunen kolektiboen aldarrikapenak onartzeko. Horren aurrean, alderdi Sozialistaren koherentzia azpimarratu du, alderdia ez baita iritziz aldatu, eta, argumentu teknikorik, ekonomikorik eta juridikorik ez dagoen bitartean, Getxo Antzokiaren aldeko iritzia izaten jarraituko dute. Amaitzeko, oposizioko bi alderdiri demagogia egiten aritzea leporatu die, iritzi-zabuekin, nahiz eta legitimoak eta demokratikoak izan, baina bizilagunengan bete ezingo diren itxaropenak pizten dituzte, eta azken bileran esan zuen hori joko arriskutsua zela, eta erakundeen irudia ahultzen duela.

Ordenación Urbana que recoge un diseño impuesto de ocupación en plantas y alturas respecto al proyecto del Getxo Antzokia, y que también rechazaron todos los grupos las alegaciones de los vecinos, y que ahora, dando un bandazo, cambien sus posturas para acoger reivindicaciones de colectivos de vecinos. Frente a eso, resalta la coherencia del grupo Socialista porque no ha cambiado de opinión, y que insiste en que mientras no haya argumentos técnicos, económicos y jurídicos para ello seguirán con la opinión favorable al proyecto del Getxo Antzokia. Finaliza criticando que dos grupos de la oposición estén haciendo demagogia, con los bandazos de opinión, aunque los reconoce como legítimos y democráticos, pero generan expectativas en los vecinos que saben que no van a poder llevarse a buen puerto, y que ya advirtió en el último Pleno que era un juego peligroso que debilita la imagen de las instituciones.

Andrade jaunak adierazi du alderdi Popularra abstenitu egin zela HAPNren aldaketan, eta aldaketa horren aurrean bizilagunek alegazioa aurkeztu zutela. Beti egon dira eraikigarritasuna ez agortzearen alde. Alderdi Sozialistari gogora ekarri dizkio legealdiaren hasieratik hona egiten ari den aldaketak. Hauteskunde-kanpainan Udalaren zuzendaritza aldatzearen aldeko apustua egin zuten, eta aldaketa hori ez zuten babestu ez hasieran ez zentsura-mozioaren aukera proposatu zenean ere. Beraz, irizpidea aldatu dute, eta Gobernu taldea babesten ari dira aurrekontua, tasen igoera, e.a. bezalako gaietan. Alderdi Popularrarentzat proiektu honetan alderdi Sozialistak bere burua saldu dio Gobernu taldeari, bizilagunak

El Sr. Andrade manifiesta que el grupo Popular se abstuvo en la modificación del PGOU frente al que alegaron los vecinos, y que siempre han mantenido el criterio de que no se agote la edificabilidad. Recuerda al grupo Socialista los cambios que viene realizando desde el comienzo de la legislatura, cuando tras una campaña electoral en la que apostaban por el cambio en la dirección del Ayuntamiento, no apoyaron ese cambio ni al comienzo ni cuando se planteó la posibilidad de una moción de censura y que han cambiado de criterio y están apoyando al equipo de Gobierno en temas como presupuesto, incrementos de tasas, etc. Cree el grupo Popular que el grupo Socialista en este proyecto se ha vendido al equipo de Gobierno,

engainatzen ditu eta, proiektuaren kudeaketari buruzko informazioa gordetzearekin batera, bideragarritasun-plana egiterik ez dute nahi. Andrade jaunak esan du alderdi Popularra udal Gobernura iristen bada, proiektua aldatuko duela bizilagunen nahi eta premiei erantzute aldera. Amaitzeko esan du Gobernu taldea gezurretan dabilela Telefonicaren eraikinaren inguruan egiten dituen adierazpenetan. Datuak eman ditu, eta Gobernu taldeari berriro gonbita luzatu dio Telefonicarekin martxoaren hasierako egunetan egingo duten bilerara joateko, proposamenak aztertzearren.

engaña a los vecinos y ocultan información sobre la gestión del proyecto y se niegan a realizar un plan de viabilidad. Manifiesta que si el grupo Popular llega al Gobierno municipal modificará el proyecto para que responda a los deseos y necesidades vecinales. Finaliza insistiendo en que el equipo de Gobierno miente en las manifestaciones que realiza respecto al edificio de Telefónica, aportando datos e insistiendo en la invitación al equipo de Gobierno para que asista a la reunión prevista a primeros de marzo con Telefónica, donde se podrán analizar las propuestas.

Basanta jaunak esan du egingo diren bileretara joango dela Alternatiba, baina mozioaren aurka bozkatuko duela, gai hori Getxoko bizilagun guztiekin hitz egin beharrekoa dela uste duelako eta ez soilik zuzenean kaltetutakoekin. Getxoko bizilagunak proiektuaren alde agertzen badira, Alternatibak ere babestuko du, baina beste datu batzuk eman edo horrelakorik gertatzen ez den bitartean, eraikina handiegia dela uste du.

El Sr. Basanta manifiesta que Alternatiba asistirá a las reuniones que se convoquen en este aspecto, pero que va a votar en contra de la Moción ya que cree que es un tema que debe debatirse con los vecinos de todo Getxo y no solamente los directamente afectados, y que si los vecinos de Getxo apoyan el proyecto Alternatiba lo apoyará, pero en tanto no se aporten otros datos o esto no suceda, le parece un edificio sobredimensionado.

Almansa jaunak adierazi du alderdi Sozialista akordioetara iritsi dela Gobernu taldearekin, betiere herritarren interesak kontuan hartuta. Garbi geratu da bi udal alderdi iritziz aldatu direla, eta ezin dela pertsonen aldaketan justifikatu, korporatiboek alderdiak ordezkatzen dituztela suposatzen baita. Alderdi Sozialistak proiektua hobetzeko egin daitezkeen hobekuntzak bultzatzeko konpromisioa du, orain arte egin diren moduan, bizilagunen eta elkarteen iradokizunak aintzat hartuaz.

El Sr. Almansa indica que el grupo Socialista ha llegado a acuerdos con el equipo de Gobierno, siempre teniendo en cuenta los intereses de los ciudadanos. Insiste en que ha quedado claro que dos grupos municipales han cambiado de opinión, y que tampoco se puede justificar en la variación de personas, ya que se supone que los corporativos representan a los grupos. Finaliza manifestando el compromiso del grupo Socialista de continuar apoyando las mejoras que puedan realizarse del proyecto, como se han venido haciendo, atendiendo las sugerencias vecinales y de asociaciones.

Arregi jaunak Telefonicaren eraikinaren infografia erakutsi du; eraikinean, transformadoreak, telefonia mugikorreko antena handi bat, konexio handiak, e.a. daude. Haren ustez, horiek ezin dira aldatu, ezta ere modu errazean beste leku batera eraman. Beraz, horrek Telefonicaren eraikinean jardutea zailtzen du, hurrengo Informazio Batzordean agertuko duten moduan.

El Sr. Arregi enseña una infografía del edificio de Telefónica en la que indica cómo en el edificio existen unos transformadores, una gran antena de telefonía móvil, grandes conexiones, etc. que estima no pueden alterarse ni trasladarse de una manera sencilla, y que eso dificulta la actuación sobre el edificio de Telefónica como ya comentarán en la próxima Comisión Informativa.

Aipatu Mozioa bozkatu dute, eta bertan behera geratu da. PPren aldeko 10 boto jaso ditu eta EAJ, PSE-EE eta Alternatibaren aurkako 14 boto.

Sometida la Moción de referencia a votación es rechazada al obtener 10 votos a favor del PP y 14 en contra del PNV, PSE-EE y Alternatiba.

Mercedes Angulo zinegotzia bilerara sartu da.

Se incorpora a la sesión la Concejala Mercedes Angulo.

**28.- UDAL ALDERDI SOZIALISTAK AURKEZTUTAKO MOZIOA LOS CHOPOS ETORBIDEAN ESERLEKUAK JARTZEAREN INGURUAN**

**28º.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL SOCIALISTA S/COLOCACIÓN DE BANCOS EN LA AVENIDA DE LOS CHOPOS.**

